

ATSOLORRA

AMATASUNAK FEMINISMOTIK



AURKIBIDEA

SARRERA.....	3
AMATASUNA ETA FEMINISMOA.....	5
INDARKERIA SINBOLIKOA.....	9
AMA IZATEKO PRESIOA.....	9
NAHI ETA EZIN.....	11
GURASOTASUNA ESKUBIDE?.....	13
GIZARTEAREN PRESIOA.....	18
AMATASUN EDO HAZIERA EREDUEN ARTEKO TALKA.....	21
AMATASUN PATRIARKAL Vs AMATASUN NEOLIBERALA.....	21
BIZITZA ERDIGUNEAN.....	21
EREDUEN ARTEAN DANTZAN.....	22
KRITIKATIK AHIZPATASUNERA.....	23
KONTZILIAZIOA.....	24
GURASO BAKARREKO FAMILIAK.....	29
ETA GIZONEK ZER?.....	30
KONTZILIAZIOA ENPRESETAN.....	32
ETXE BARRUKO LAN BANAKETA.....	33
NEKE MENTALA.....	35
PANDEMIAREN ERAGINA.....	38
ETA NI NOIZ?.....	40
HAURREN KANPO ZAINZA.....	45
AITON AMONEN PAPERAK.....	47
ZAINZA KATE GLOBALAK.....	47
TRIBUAREN BEHARRA.....	48
INDARKERIA MATXISTA.....	50
INDARKERIA OBSTETRIKOA.....	55
GORPUTZA ETA SEXUALITATEA.....	56
ONDORIOAK.....	59
INDARKERIA SINBOLIKOA.....	59
KONTZILIAZIOA.....	60
INDARKERIA MATXISTA.....	62
GORPUTZA ETA SEXUALITATEA.....	62
BIBLIOGRAFIA.....	64

SARRERA

Amatasunak emakume askoren bizitzak zeharkatzen ditu. Jaiotze tasak beheranzko joera duen arren, amatasuna hor dago. Estatu espainoleko Estatistika Institutuaren arabera, 35 urtetik gorako emakumeen %77,2koa da ama, (2018ko Ugalkortasunari buruzko Estatu espainoleko inkestatik ateratako datuak oinarri). Haatik, emakume askok bizi duten paradigma den arren, feminismoak ez dio orain arte amatasunaren gaiari eutsi. Ez bere horretan bederen.

Baina hasteko, zer da ama izatea? Ezin dugu amatasun eredu bakarraz hitz egin. Bizipen bakoitza bere testuinguruari hertsiki lotua eta baldintzatua dago. Amak duen egoera sozio-ekonomikoak eta inguru familiar eta sozialak eragina izango du bere bizipenean. Eta noski, amatasun biologikoa dago, harrera edo adopziokoa, norberak erditutakoa edo ez... Ez du egoera berdina ama bakarrak edo bikote harremanean hezten duenak, ez eta inguruan tribu edo zaintza sare bat eraiki duenak... Amatasun eredu unibertsalik ez dago beraz.

Amatasunak eta feminismoak harreman korapilatsua izan du beti. Mendeak joan eta mendeak etorri, emakumeok gizartearentzat izan dugun funtzio nagusia amatasuna dela esan zaigu. Finean, emakumearen destinoa ama izatea, -eta are gehiago, ama ona izatea-, izan da patriarkatuak historian zehar sendoturiko ideia. Eta noski, honen aitzinean emakume-ama binomioa haustea izan da feminismoaren sorreraren borroka garrantzitsuenetakoa.

"Emakumeak amatasunaren esklaboak dira. Amatasuna kartzela bat da", zioen Nawal El Saadawi idazle feminista egiptoarrak. Zentzu berean aritu zen Simone de Beauvoirrek "El segundo sexo" liburuan (1949). Haren aburuz ama izateak "emakumea espeziearen eta naturaren mende zegoela" egiaztatzen zuen. Urte batzuk geroago, 1963an, Betty Friedmek "La mística de la feminidad" liburuan gogor kritikatu zuen emakumeak amatasunera eta etxeko lanetara lotu zituen betetasun eta zorion ideia.

Emakumeon gorputza, sexu askatasuna eta ugalketa haatik, bai izan dira feminismoaren guda zelaiak. Asko eztabaidatu da ugalketaz feminismoaren historian zehar, baina sexualitatearen ikuspuntutik edo haurdunaldia eteteko eskubidearen aldetik arakatu izan da gaia. Gure sexualitatearekin gozatzeko ahalmena zein abortatzeko dugun eskubidea sutuki defendatu beharrekoak dira, noski. Baina aukeratutako amatasuna egon badago, eta mataza horri ere tira egin behar zaio.

Gure ustez amatasunak lantzeko aukera zabaldu behar du feminismoak, amatasunaren gaiari eutsi eta ahizpatasun kolektibotik begiradak elkarbanatu eta egungo diskurtsoetan eragin.

Helburu horrekin sortu zuen Parean elkarteak Atsolorra deitu diogun proiektu hau. Atsolorra garai batean Euskal Herrian egiten zen jaiotza- erritua zen. Egun ia galdua dagoen erritu horretan, haurra jaiotako baserrira auzoko emakumeak bisitan joaten ziren, ama berriari laguntzeko asmoz. Atsolorraren erritua Eliza Katolikoak bataioaren betebeharra ezarri aurrekoa zen, hau da, XVI. mende aurrekoa.

Gure atsolorrarekin amatasun feminista eraikitzeke plaza sortu nahi izan dugu. Amatasunak ezartzen digun kortsea hautsi eta askatasunez hausnartzeko. Batetik, emakumeei hitza eman eta entzuteko asmoz saio ezberdinak egin ditugu Gipuzkoan zehar. Hernaniko emakume etxean eta Pasaian izan gara adibidez, bizipenetatik hausnarketak harilkatuz. Era berean, saioetan bildutako iritzi eta bizipenak aberasteko, inkesta bat zabaldu genuen.

Denen ahotsa batuz, amatasuna nola bizi dugun ezagutu eta ikertu nahi izan dugu eta ondorengo orrietan saio zein inkestaren bidez jasotako bizipenak eta emaitzak aurkituko dituzue.

Amatasunaren inguruko inkesta hau 143 lagunek bete dute. Aurrez aipatutako saioetan parte hartu duten emakumeek osatu dute inkesta bai eta sare sozial ezberdinen bidez gonbidatu ditugunak (Twitter, Facebook, Instagram eta Whassapez). Inkestak erabat anonimoak izan dira, noski; baina badakigu inkesta bete duten 143 lagunetatik, 130 baino gehiago euskal hiztunak direla, izan ere, inkesta euskaraz eta gazteleraz egiteko aukera bazegoen ere, gehiengoak lehenengoaren alde egin du.

Hasieran aipatu bezala, amatasunaren bizipena estuki lotua dago amak duen testuinguruari, beraz, ikerketa honen ondorioak irakurtzerako orduan tamalez kontutan hartu beharko ditugu lagin honek izan ditzakeen gabeziak.

Orain arte amatasuna, eta haren inguruan gertatzen diren haurdunaldiak, erditzeak, aborto edota heriotza gestazionalak, ernalezintasuna, zaintza... etxe barruko kontuak izan dira, ahopeka azaldutakoak, askotan tabuak. Denbora baina ez da alperrik igarotzen eta geroz eta gehiago dira gizartean dauden amatasun eta zaintza eredu ezberdinak. Hauek baina modu isolatuan garatzen dira, bakoitzak bere bakardadean eta inguru hurbila ahal bezala inplikatur. Egon badauden praktika interesgarri hauek, baina, feminismoaren aterkiak eman lezakeen oihartzunaren zain daude tamalez.

Ama izatea bizipen intimoa da, baina aldi berean, bizipen politikoa ere bada. Feminismoaren premisa garrantzitsuena da pertsonala politikoa bihurtzea. Eta horixe da egin nahi dugun ariketa.


Amatasuna baina feminismotik bizi eta aldarrikatu behar dugu eta joko politikoan kokatuz, bakardadea eta indibidualismoa gainditu eta bizipenak elkarbanatuz, eta hausnartuz.

AMATASUNA ETA FEMINISMOA

Feminismoak amatasuna behar bezala lantzen duen edo ez jakiteko, emakumeek honen inguruan duten pertzepzioa ezagutu nahi izan dugu eta horretarako galdera hori bera zabaldu dugu inkestan.

Amatasunaren gaia feminismoaren diskurtsoan txertatua dagoela uste duzu?

140 erantzun



Ez dago erabateko adostasunik erantzunetan baina, ia %58ak amatasunaren gaia diskurtso feministan behar bezala txertatua ez dagoela iritzi dio. Baietz diotenak %33,6a dira eta ia %9ak ez dakite galdera hau erantzuten.

Jasotako erantzunetan askok uste dute feminismoak amatasunari historikoki iskin egin diola:

"Orain arte, amatasunari uko egiteko zentzuan landu da, errefusatzuz"

"Amatasunak zeharkatzen dituzten indarkeriak ez dira landu. Amak ahaztuak dira maiz espazio eta borroka feministetan"

"Amorrazioa sortu didan gaia da amatasunarena. Matxismoa barneraino sartuta daukagu baita emakumeok ere. Une askotan bakarrik sentitu naiz eta ingurukoekin hitz egitean, egoera berdintsua bizi dutelako sentsazioa daukat baina gainera, ez dutela hitz egin nahi, aitortzea txarra balitz bezala"

"Oso zaila egin zait erantzutea. Egia da aspalditik amatasunaren gaia jorratuta ikusi dudala. "Bigarren sexuan" Beauvoirrek jada amatasuna emakumearen zapalkuntzarako tresna moduan izendatu zuen. Orain ere, Durangoko topaketetan egindako saioa, Emaginen azaroko topaketak, zuen lanketa...gaia presente ikusten dut. Hala ere, azken hamarkadan feminista eta ama kontzeptuak ia elkarren kontra jaso ditut. Bada beharra amatasuna-feminismoa lotzeko".

"Gehiegi hausnartu gabe esango nuke tabu bat dela"

"Amatasuna feminismoan txertatua egon beharko luke, ama izateko erabakia askatasunez egiteko eta ez ohiturez"

"Feminista eta ama izanik, militantziaz baztertuta sentitu izan naiz, "beste lehentasun" batzuk omen neuzkalako. Erabakitzeke aukerarik gabe."

"Auniztan aditu dut amatasuna eta feminismoa ez direla bateragarriak, baina ni ez nago ados"

"Azken urtetan sartzen ari den arren, uste dut ez zaiola heldu seriotasunez gaiari"

Amatasunaren gaia behar bezala eta bere dimentsio guztian lantzen ez dela uste arren, elkarriketatutako askok poliki bada ere, gaian sakontzen ari dela iritzi diote.

"Zaila bai edo ez esatea. Agian ez da lehen bezala problematizatzen, baina, zaintzaz aritzen gara orain eta horretan amatasuna kokatzen da ere. Galdera zaila"

"Azken aldian ikuspegi feministatik amatasuna lantzen ari dela esango nuke, hortik literatura ere gaiak izan duen gorakada"

"Amatasunaren inguruko eztabaida badago, beste gauza bat da nola enfokatzen den eta irisgarritasuna duen. Baina egon badagoela uste dut"

"Duela gutxi hasi gara amatasunaz beste ikuspegi batetik, hitz egiten, idazten, pentsatzen... Baina oraindik gizartearen betiko ikuspegia gailentzen da"

"Ez dakit modu egokian edo okerrean. Baina normalean amatasunari buruzko iritzia edo irakurketa izaten du feminismoak, nire ustez. Ekofeminismoarekin edo lan merkatuarekin"

iritzi oso ezberdinak egon diren bezala. Esentzialistagoak, pragmatikagoak, ikuspegi androzentrikoagoarekin..."

Durangon egin ziren Euskal Herriko V. Topaketa Feministetan amatasunaren gaiak izan zuen trataera mahai gainean jarri du inkestatu batek baino gehiagok eta bertan "hutsune nabarmena" izan zela aipatu dute; hala ere, une hura inflexio puntu bat izan zela uste dute eta ordutik hona ekimenak nabarmen gehiago direla.

Azken aldian amatasunaren gaia geroz eta gehiago lantzen ari bada ere, inkestatu gehienek oraindik ere gaian sakondu beharra dagoela nabarmendu dute.

"Feminismotik amatasunaren inguruko irakurketa feminista falta dela iruditzen zait"

"Ama izaten zarenean, zu zaren guztia desagertu egiten da eta besteen zaintzan, umearengan, zentratzen gara guztiz gure zaintza guztiz alde batera utzita. Bizitza aldaketa honek eragin handia du emakumeengan eta gauza asko modu arin batean asimilatu behar ditugulako, bizitza guztiz aldatu zaigu eta dolu batean sartzen gara, agur esaten diogulako izan garen horri. Gainera amatasunak baditu bere alde ilunak eta gutxitan hitz egiten da honetaz, nahiz eta azkenaldian geroz eta gehiago hitz egin, eta horrek errudun sentiarazten gaitu batzuetan ere pentsamendu ez egokiak izaten ditugulako askok. Kontuan izan behar da gainera erditzean jasandako tratua, askotan ama alde batera uzten baita eta bere zaintza".

"Agian gehiago egon beharko luke, benetan desberdintasunak markatzen dituen bizimodua baita."

"Berriki indarra hartzen hasi da, lehen gai gatazkatsua izanda, oso bazterrean izan den arren."

"Geroz eta gehiago hitz egiten ari da, baina ez dut uste txertatua dagoenik. Oraindik badago zer egina"

"Nola dagoen txertatua, hor ikuspegi desberdinak daudela uste dut, erabat askatasunerantz garamatzana lantzea falta dela uste dut"

Ama kontzeptua familia nuklearretik kanpo ulertzeko beharra sentitzen dut.

Azken urteetan zaintzarekin batera, amatasunaren gaia lantzen hasia bada ere, feminismoak oraindik gainditu ez duen ikasgaia da amatasunarena. Gaiaren aurrean entzun-gogorrarena egiten duen bitartean tamalez, euren bizitzako une konkretu batean, umezurtz uzten ditu emakume asko eta asko. Ama izateak eraldaketa itzela dakar emakumeen bizitzan eta etapa horretan sortzen diren kezka, galdera, zalantza, indarkeria egoera eta aldarrikapenek ez dute oraindik ere behar duten lekua aurkitzen feminismoan. Hutsune honek emakume hauek feminismotik aldentzera eramaten ditu bizitzako une horretan eta aldi berean bakarrik uzten ditu.

Egindako saioetan ateratako sentrazio nagusia bakardadearena izan da. Amatasunaren lehen hilabete eta urteetan, emakumea bere haurrarekin etengabe dagoen une horietan bakardadea da behin eta berriz errepikatzen den sentazioa; zer nolako egoera bitxia, bakarrik egoteko aukerarik ez, baina aldi berean inoiz baino bakartuagoak sentitzen dira emakumeak une horretan.

Bakardade horri ez dio laguntzen feminismoak amatasunari bizkar ematea. Amatasunak, bere zentzu zabalenean lantzeko aukera zabaldu behar du feminismoak. Ahizpatasun kolektibotik begiradak elkarbanatu, isolamendua hautsi eta egungo diskurtsoetan eragiteko bokazioz.

Amatasunaren instituzioak historian izandako bilakaera aztertzen du Adrienne Richek "Emakumeagandik jaioa" saiakeran eta amatasuna instituzio patriarkal edo esperientzia pertsonal gisara banatzen ditu. Noski, amatasunak instituzio gisa baldintzatu eta mugatu egiten du, baina feminismoaren erronka amatasunaren instituzio patriarkala suntsitzean eta esperientzia pertsonala askatzean datza.

Arestian ikusi bezala, Nawal El Saadawi edo Simone de Beauvoir moduko feministek ama izatea madarikaziotzat jo izan dute, baina amatasuna bere horretan da zama? edo indarrean den sistema patriarkalak lehengo eta kapitalistak ondoren ezarritako baldintzak egiten dute amatasuna madarikazio bat?

Feminismoak lortu du amatasuna aukera bat izatea eta ez emakumeen eginbehar bat. Emakume-ama binomioa gaindituta, ez al da garaia amatasunaren esperientzia nola eta zein baldintzetan bizi nahi dugun erabakitzeko?

INDARKERIA SINBOLIKOA

Amatasuna idealizatua dagoen gizarte batean bizi gara, ama izatea goetsi egiten da, eta emakume-ama elkarri lotuta dagoen binomioa da oraindik. Amatasunaren ikuspuntu tradizional honen arabera, emakumearen helburu gorena ama izatea da; are gehiago ama on eta sakrifikatua izatea. Ikusmira honen arabera emakume batek bere burua emakume oso gisa aintzat hartzeko, ama izan behar du.

AMA IZATEKO PRESIOA


Gezurra dirudien arren, txiki txikitatik ikusi eta asumitzen dugun ikuspuntua da eta bestela, aztertu zenbat neskatala aritzen diren bata besteari ama izan nahi duten edo zenbat haur izan nahi dituzten galdetzen? Adin berdineko mutikoei, galdera bera egiten al diote elkarri?

Tamalez, oraindik ere, indarrean den amatasunaren ikuspuntu tradizional honen arabera, haurrak izan ala ez moduko erabakiak hartzea eragozten zaie emakumeei. Emakumearen anatomiak baldintzatzen dio etorkizuna ikuspuntu honen arabera. Noski, ugalketaren kontzeptua biologikoa da –beraz, naturala–, baina amatasunarena kulturala da. Emakumea ez dago haurrak izateko prestatuta, baizik eta horretarako ahalmena dauka; berak erabaki behar du amatasuna bere bizitzaren proiektu bihurtu nahi ote duen.

Hau horrela bada ere, ama izateko sentitzen dugun presioa hor dago oraindik ere. Familian, lagunartean... gizartean orokorrean. Gure ikerketan galdera hau erantzun duten 141 lagunetatik %51ak onartu du presio hori sentitu duela noizbait.

Ama izateko presioa sentitu duzu noizbait?

141 erantzun



Amatasunaren gaineko presiorik sentitu ez dutela diotenek ere zalantza agertu dute, eta ea presioa hori erabat barneratua duten galdetu diote euren buruari. Zenbait hausnarketa eta pasarte ere partekatu dituzte inkestan:

"Inguru hurbilenean ez dut ama izateko presiorik sentitu, ziur asko, beti nahi izan dudalako. Beste gauza bat da, nahi hori zer puntutan izan den modu askean eraikia edo testuinguruak eragindakoa eta berezkoa banu bezala gorpuztua"

"Ama izateko presioa ez modu esplizituan, baina badakit nire heziketan horretara bideratutako mezu subliminal asko egon direla."

"Ama izatea desio nuen, fisikoki esango nuke, barrenak eskatzen zidan, erraitetatik, ia ia palpito bat bezala esango nuke, desio sexuala izan zen. Beraz, kontzienteki agian bai, baino ez kontzientzia mental batekin, nire gorputza eta desio fisiko horren kontzientziatik."

"Nahiko gaztetatik argi nuen ama izan nahi nuela. Esperientzia bera oso aberasgarria izango zela iruditzen zitzaidan arlo pertsonalean eta eraldaketarako motor gisa. Nigana hurbildu eta nire oinarritzko beharrak presenteago izatea lagunduko zidala pentsatzen nuen"

"Bultzada bat sentitu nuen ama izateko. Desioa, nire ibilbidean kokatu nahi nuen esperientzia. Maitasuna oinarri duen harremana da amatasuna. Etengabeko bilakaeran murgiltzea, balorazioa edo ebaluazio prozesua, helburuak egokitzea... Ikaskuntza, ardura, gozamina, gatazka... Ikusezin dauden erronka azaleratzea"

"Banuen fase berri batera pasatzeko gogoia. Nire aita heldua zenez, banuen nire haurrek bera ezagutzeko gogoia".

"Eta zuek, noizko? ", "garaia pasako zaizu"... Oraindik ama izan ez diren emakume askok maiz entzuten dituzte esaldi horiek, are gehiago ama izan gabe berrogei urteko mugara hurbiltzen ari direnean. Senideak, lankideak edo konfiantzarik ere ez duten bizilagunak izan daitezke halakoak behin eta berriz azaltzen dituztenak. Intimitatearen inbasio hori emakumeek jasan behar duten presio sozialaren parte da, amatasuna atzeratu edo ama ez izatea erabakitzen dutenean.

Amatasunaren presioa baina handiagoa da, 30-35 urteko adin langa gainditu eta bikote gizona izateko duten emakumeen artean. Lehen aipatu bezala, amatasuna idealizatua

dagoen gizarte batean bizi gara, baina ideal horrek baditu bere "mugak" eta "baldintzak".

"Uste dut bollera butch izateak zerikusia duela ama izateko presiorik ez eduki izanarekin"

Gezurra dirudien arren, oraindik oso gogorra da ama ez izatea. Berekoitzat jotzen dira emakume hauek, estigma handiari aurre egin eta euren erabakia maiz justifikatu beharrean aurkitzen dira.

Emakume batzuek gainera, ama izatea erabakitzen dute, sozialki ama ez izateko aukera ere ezin dutelako aintzat hartu. Gizarte honek baztertu egiten ditu amatasun nahirik ez duten emakumeak. Eta noski, mendebaldeko gizarteaz ari gara, beste gizarte batzuetan, emakumeek ez dute ama izan nahi duten edo ez euren kabuz erabakitzeko eskubiderik ere.

NAHI ETA EZIN

Are larriagoa da ama izan nahi eta ezin dutenen egoera, norberak bizi duen prozesu zailari, doluari askotan, aurre egiteaz gainera, ingurukoen presioa jasan behar izaten dute. Gutxi hitz egin da, ama izan nahi eta ezinez, eta gutxiago abortuaz eta heriotza perinatalaz.

Zeharo zabalduta dago haurdunaldiko lehen hiruhilekoa igaro arte haur baten esperoan zaudela isilpean gordetzearen ohitura. Horrek argi adierazten du zein punturaino den tabua heriotza mota hau.

Datuek baina errealitate ilun bati egiten diote leku, izan ere, haurdunaldien ia %20 abortuan bukatu daiteke gestazioko lehen hamabi asteetan. Gutxi hitz egiten da beraz, 5 emakumetik batek bizi duen egoera hauetaz.

Indarrean den sistema kapitalistan ez dago umeentzat tokirik. Datuek argi erakusten dute jaiotze tasak behera doazela eta ama direnen adina, aldiz gora. Estatu espainolean adibidez, 32 urtetan kokatzen da amatasun adina, 1986. urtean 26 urtekoa zen bitartean.

Gazteek pairatzen duten langabezia eta prekarietatea, etxebizitza duina lortzeko aukera eskasak eta zaintza eta ordaindutako lana bateragarri egiteko neurri eraginkorrik ez egoteak, asko atzeratu ama izateko erabakia. Eta honek, nahi edo ez haurdun geratzeko aukerak murrizten ditu.

Interes enpresarialek antolatutako gizarte eredu hau, bizitzaren erritmoen kontrakoa da. Ikusi bestela Facebook, Apple edo Google bezalako enpresek euren langileei amatasuna atzeratu eta obuluak izozteko eskaintzen dizkieten neurriak.


Geroz eta gehiago dira haurdun geratzeko erreprodukzio teknikak behar dituzten emakumeak. Honek amatasuna pribilegio bihurtzen du, izan ere, osasun sistema publikoaren zerrenda amaigabeen ondorioz (adin muga ere izan ohi dute), askok jotzen dute osasun zentro pribatuetara. Diruaz haratago, halako prozesuak oso gogorrak izan ohi dira, bai fisikoki zein mentalki.

"Fertilizazio prozesuak tabu bat izatea ere ez du batere laguntzen. Bakarrik zaude, zure gorputzaren erabateko kontrola galtzen duzu, prozesu erabat medikalizatua da, eta galeraren beldurra etengabea da"

Amatasunak egungo gizartean eragiten duen presioaz haratago, ama izateko erabaki modu kontzientean hartu duten edo ez galdetu dugu inkestan eta %88,7ak baiezkoa erantzun dio galdera honi.

Ama izateko erabakia modu kontzientean hartu zenuela uste duzu?

142 erantzun



Hala eta guztiz ere, nahiz eta gehienak oso modu kontzientean erabaki euren amatasuna, honek dakarren eraldaketaren aurrean "beldurra" edo "bertigo" gisako sentsazioak bizi izan dituztela onartu du batek baino gehiagok.

"Ez naiz erditu, eta beraz ez naiz ama zentzu horretan. Beldur handia eta bertigo handia ematen du ama izatearen ideiak eta gaur egun dagoen bezala ez zait batere errealitate xamurra edo erraza iruditzen."

"Ama izan nintzenean uste nuen kontziente nintzela baina denborak erakutsi dit ezetz"

"Askok kostatu zitzaidan ama nintzela gorpuztea. Bai, alaba bat jaio zitzaidan, baina uste dut asko beranduago bihurtu nintzela ama. Nigan arrakala bat sortu zen, ni naizena berriz eraikitzeko aukera bat, berrezagutzeko, berrasmatzeko, ni izaten permititzeko. Maitatzeko beste modu bat, eredu bat naizenez (alabarentzat) baita foku edo ispilu bat, gauzak nola egiten ditudan eta nola egin nahi ditudan pentsarazten dit, barruko epailea azaleratu dit askotan... Ardura, kezka eta beldurrak, ilusio eta maitasunarekin nahastu dira. Baina finean, zerbait ona egiteko aukera da ama izatea."


Oso gutxi hitz egiten da oraindik amatasunaz damutzen diren emakumeen inguruan. Askok ez lukete errealitate hau inoiz ozenki esango, eta askori hau onartzea ere kosta egiten zaie. Hala ere, egun badira errealitate hau onartzen duten emakumeak.

GURASOTASUNA ESKUBIDE?

Gurasotasuna eskubidea den edo ez galdetu diegu emakumeei eta galdera honetan ez dago adostasunik. Gehiengoak hala ere, baietz dio, izan ere gurasotasuna eskubide bat dela defendatzen du %42ak. Antzekoak dira kontrakoa iritzi diotenak, %40a, eta azkenik %17tik gora ez dira gai galdera honi erantzuteko.

Edozeinek ama edota guraso izateko eskubidea duela uste duzu?

140 erantzun



Alde bateko zein bestekoek euren ikuspegia azaltzen saiatu dira:

"Ama izatea ardura sozial eta kolektiboa da, bizitza berriak aurrera eramateko ardura da"

"Gurasotasuna ez da eskubide bat"

"Eskubidea da, beste inoren eskubidea zapaltzen ez den bitartean"

"Aukera bat da ez eskubidea"

"Eskubidea eta desioa ezin direla nahastu iruditzen zait eta desioa eskubide lez agertzen dela sarri, ere bai."

"Uste dut guraso izateko moduez gain gaitasunez hitz egingo beharko genukeela"

"Gero eta duda gehiago ditut "guraso izateko eskubide" horri buruz. Nondik abiatzen dugu eskubide hori, noraino... Non hasten da haurraren eskubidea, nondik, noiz arte, nola..."

"Guraso izatea norbaitentzat eredu izatea da, eta bizi osorako"


"Eskubide hitzak mina egiten dit. Eskubideak nire ustez ez du edozein bitarteko ahalbidetzen"

Ama izateko eskubidea edozeinek baduela jarri badut ere eskubide hori gauzatzeko edozer nolako bitartekoak erabiltzearen alde ez nago...adibidez haurdunaldi subrogatuak, edota zenbait adopzio sistema salerosketan oinarritua....."

Erreprodukzio moduak ere badira eztabaida eremuak, eta inkesta bete duten emakumeei horien inguruan galdetu genien. Zehazki fertilizazio prozesu ezberdinen inguruan, adopzio edota harrera familiaren gaiaz eta baita eztabaidaren erdian diren haurdunaldi subrogatuaren inguruan.

Ondorengo ama izateko bitarteko edo ereduetatik zeinekin egiten duzu bat?

138 erantzun



Harrera familiak dira adostasun maila handiena lortzen duen eredua, inkesta bete duten ia %93ak eredu honen alde egiten du eta. Kuriosoa da datua, izan ere, urtero urtero Euskal Herriko aldundi ezberdinak harrera familien premia dagoela esanez jarduten dute. 2020an adibidez, Gipuzkoako herrialdean 414 neska-mutiko zeuden harrera-familetan, baina beste 60 familia gehiago behar ziren umeen premiak asetzeko.

Adopzioa ere bada oso ondo ikusia dagoen eredu bat, ia %90ak bat egiten du adopzioarekin. Hala ere, adopzioaren atzean ezkututzen den sistema zalantzan jarri du batek baino gehiago. *"Adopzioa eta fertilizazio prozesuekin moduen arabera nago ados"*, aipatu zuen batek, adibidez.

Haurdunaldi subrogatuak haserre bizia eragiten du. Inkestatutako %14,5a bakarrik dago eredu honen alde, eta egindako ekarpen eta iritzietan ikusten denez, alde dauden horiek baldintza batzuen arabera daude alde. Egun, Argiak egindako erreportaje baten arabera Euskal Herrira 250 haur inguru datoz urtero atzerriko emakumeen umetokietan hazita.

"Haurdunaldi subrogatua ez behintzat egungo planteamenduarekin, pentsatuz... baina barrenetik erabateko errefusa da eredu honekiko".

"Haurdunaldi subrogatuarekin dikotomia batean nago, adiskide batengatik egitea ez dut gaizki ikusten diru truke esplotazioa izan daiteke, nahiz eta borondatezkoa izan."

"Kasu guztiak ezagutzen ditut, emakume zein gizon. Nire prejudizio batzuk ere gainditu ditut zenbait kasutan. Pertsona bakoitzaren begiradetatik errexago ulertzen dira zenbait bide. Hala ere hauen azterketa objektiboa izatea eta gizartea aztertzea beharrezkoa egiten da. Eta talka asko emango dira tamalez. Adibidez, subrogatua ez da lasai uzten nauen bide bat. Eta gizon baten kasua ezagutu ostean, begirada piska bat aldatu dut"

"Ordainduta bada ez nator bat haurdunaldi subrogatuarekin, badakit emakume bakoitzaren gorputza berea dela, baino dirua eta beharra tartean jartzen direnean erabakiak ez dira askeak izaten. Hala ere, baten modura gertuko norbaiti aukera eskaintzearekin ez dut arazorik (printzipioz)."

Badakigu harrera, adopzio zein bestelako prozedurek ere eskubide urraketak eta arazo sozialak izan ditzaketela atzean, eta hori bermatzeko indarra jarri behar dela uste dut. Subrogatua, aldiz, eskubide urraketa da definizioz"

"Haurdunaldi subrogatuak zalantza handiak sortu izan dizkit beti, ez baita sinesten erraza inor halakorik modu altruistan egiteko prest dagoenik."

"Haurdunaldi subrogatua ez da amatasun eredu bat, erosketak bat da eta Estatu espainolean delitu bat".

"Guztiekin egon naiteke ados. Kontua da gero nola garatzen den bakoitza, ze kasuetan, zer zainduz... Eta abar"

Inkesta egiterako orduan zenbait ereduren hutsunea egon dela nabarmendu nahi izan dute zenbait inkestatuk:

"Lagun arteko hazi ematea (etxeko intseminazioa artifizia al da?), bikotetik kanpoko gurasotasuna ez da konteplatzen"

"Lagun batek bere semena ematea ere gertatzen da, baita semena atzerriko semen banku batera eskatzea ere, Dinamarkako Cryos bankura alegia. (nahiz eta orain ezin den eskaera pertsonala egin, debekatu egin baitzuten orain gutxi)"

"Veo que no contempláis la posibilidad de elegir no tener hijos. No se puede mezclar en el mismo ítem medio con modelo y con respuesta única. Tampoco aparece el medio más habitual, tener un embarazo sin recurrir a otros procesos. La gestación subrogada no es un modelo de maternidad, es una compra y en España un delito. No se plantean modelos de maternidad, solo son recursos para tener un hijo/a, lo que deja esta encuesta sesgada y los resultados serán no válidos, pues no tendrán el rigor necesario."

Gure ustez gurasotasuna ez da eskubide bat. Ama edo aita izan nahi izatea, desio ulergarria da, baina hori da: desio edo nahi bat da. Eskubidea haurrena da, adin txikikoek babes berezia jasotzeko eskubidea dute, fisikoki, mentalki eta sozialki osasuntsu eta libre haz daitezten. Guraso izateko desioa zilegi izanik, horrek ez du esan nahi eskubidea denik eta gurasotasuna ezin da besteen eskubideen gainean eraiki eta beraz, ezin da onartu haurdunaldi subrogatua gurasotasun eredu gisa.

Haurdunaldi subrogatuaren oinarrian menpekotasun ekonomikoa dago. Pobreziak bultzatzen ditu emakumeak euren gorputzak alokatu eta besteen umeak izango direnak erditzera. Haurdunaldi subrogatua sistema kapitalistak merkantilizatutako prozesu biologikoa da. Emakumeek haurrak sabelean hezteko duten gaitasuna negozio bihurtzeko ariketa.


GIZARTEAREN PRESIOA

Amatasunak dakarren presioa baina, ez da lehen erditzearekin bukatzen. Lehen umeak pare bat urte betetzen dituenean berriz hasten dira komentarioak: "noizko bigarrena?", "bikotetxoaren " bila joan beharko duzu, ezta?"... Emakumeek hartutako erabakiak inoiz ez dira egokiak, gehiegi edo gutxiegi itxaron duzu anai-arrebak erditzeko, nola geratuko zara ume bakarrarekin!, nola moldatuko zara hiruekin?... beti dago zer esana.

Presioa baina ez da amatasunen denbora edo kopurura mugatzen, norberak hautatutako amatasuna eredu edo haziera ereduarekikoa ere bada. Inkestatik ateratako ondorioak argiak dira zentzu honetan, izan ere, inkestatutako ia %64a aukeratutako amatasun ereduagatik epaitua edo diskriminatua sentitu dela aitortu du.

Zure amatasun ereduarekiko epaitua edo diskriminatua sentitu zara?


138 erantzun



Epaiketa eta kritika horiek nondik datozen ere galdetu dugu eta %62,5a gizartearengatik oro har izan dela epaitua dio, %25ak alabaina, presio hori zuzenean beste emakumeengandik datorrela ere esan du.

Noren partetik sentitu zara gehienbat epaitua?


96 erantzun



Epaketa horien pisua nabarmena da, izan ere, inkestatutako emakumeen ia %40a bere amatasuna praktikatzeko moduagatik errudun sentitzeraino iritsi da presio eta kritika hauek medio.

Errudun sentitu zara zure amatasuna praktikatzeko moduagatik?

138 erantzun



Epaketa horien atzean ezkututzen diren arrazoi edo motiboen inguruan galdetu diegu inkestatuei eta oso bestelako bizipen eta pasarteak partekatu dituzte gurekin.

"Epaitua erditzetik sentitu naiz, etxean erditu nuen eta oso epaitua izan nintzen, bai senideak, beste emakumeak eta gizartea orohar. Haurra gainean eramateagatik, bularra ia hiru urte arte emateagatik, Madilera konferentzia batera joateagatik umeak aitarekin uzteagatik, umeari K bitamina ez ematea erabakitzean, umea hiltzeko arriskua zuela esan zidan lehen bisitan pediatrik eta baita fularrean itota ere".

"Niretzako denbora hartzearekin epaitua sentitzen naiz"

"Eszedentzia edo murrizketa ez eskatzeko presioa sentitu dut. Errua lanean egon eta umearekin egon behar naizela pentsatu".

"Eszendentzia hartzeagatik epaitua, lana aldatzeagatik... Etengabeko balorazio epai zikloa da amatasuna. Nekatuta bizi naiz. Askotan presiopean sentitu eta ihesbideen beharra".

"Lagun feministek lotura handiegia sortzeagatik kritikatu nau, inguruak hazkuntza demandanteagatik, Gutxiago ama txarra izateagatik. Bularra hiru urte ematea nire ingurukoek ez dut ondo ikusi (ama eta bikotea kenduta). Errudun sentitu naiz niretzako denbora behar nuenean. Askotan nahiko nukeen ama izateko nekatuegi sentitzerako ere errudun".

"Bereziki nire amarengandik sentitu naiz epaitua. Niretzako denbora hartzen badut, ama txarraren mezua sentitzen dut berengandik".

"Gehiegi babesten ditudalako edo elikadurarekin obsesionatua nagoela esaten didate. Estresa eguneroko tetrisean antolatzeako askotan. Zerbait gaizki egiten detenean, alperrikako garrasiak, gero stres edo agobio momentuak izaten ditut".

"Lagun emakumeak izan dira gehien epaitu eta aurpegiratu didatenak. Alaba jaio eta hiru hilabetera espetxeko bisitak egiteagatik epaitua izan naiz, haurra uzteagatik. Nire bikoteak eta biok erabakiak hartzeak lasaitasuna ematen dit. Ekipo bat osatzen dugu! Alabak emozionalki gaizki ikustean eta laguntzea lortzen ez dudanean oso gaizki sentitzen naiz".

"Anbulategiko eta hospitaleko emaginengatik epaitua eta diskriminatua sentitu izan nintzen bularra eman nahi izan ez nuelako. Inguruan inork ez zuen ezer esan erabaki honen arira baina ez zela ulertzen uste dut".

"Presioa eta epaiketa geuk ere geure buruari egiten dioguna".

"Niretzat zoragarria izan da crianza-ri dedikatzeko izan dudana aukera. Ez nuke ezertan aldatuko. Hori lehenesteagatik, tarteka, epaitua sentitu izan naiz".

"Epaitua baino mirestua sentitu naiz askotan ama modu honetan izateagatik. Ze gogorra zaren, ze superwoman... Hori ere zama izan da modu batean."

"Feminismotik ere epaitua sentitu izan naiz edo amatasuna praktikatzeko moduagatik feminista ez naizela pentsatzera ere heldu naiz noizbait".

"Antsietatea bizi izan dut amatasunaz kanpo zeuden zamengatik."

"Presio gehien familia barnean (amona, izeba, ama, amaginarreba...)"

"Zesarea egin zidatenean errudun sentitu nintzen, erditzeko nire kaxa gai izan ez nintzelako"

AMATASUN EDO HAZIERA EREDUEN ARTEKO TALKA

Ama izateak gaur egun, zure bizitzaren esparru ezberdinetan uko egiteak dakar. Lehen ikusi bezala, inkestatutako %73,7ak aitortzen du ama izatea erabaki zuenetik gauza askori uko egin behar izan diola. Ama izatea ala libre izatea planteatu zaigu askotan dikotomia gisa. Eta noski, ez dugu guk ukatuko ama izateak denbora eta esfortzua eskatzen duenik, baina non dago arazoa? Amatasunean ala bizitzaren logikaren aurka doan sistema sozioekonomikoan?

AMATASUN PATRIARKAL Vs AMATASUN NEOLIBERALA

Ama bihurtzen zarenean, bi amatasun eredu kontrajarri jartzen zaizkizu begien aurrean: amatasun eredu patriarkala edota neoliberala, erabat merkatuari lotutakoa.

Sistema patriarkalak emakumeak, eta bereziki amak, etxeko lau pareten artean mantendu nahi gaitu. Emakume gisa erditu eta ama izan behar ginen, hala zioen biologiak, erlijioak eta gure egiteko sozialak. Etxeratze honek lan erreproduktiboari lotu gintuen.

Sistema kapitalistak baina eskulan merkearen beharra izan zuenean, merkatuko ateak ireki zizkien emakumeei eta orduan ama onaren eredu ideala konplikatzat joan zen. Ordura arte etxean egin beharreko lan erreproduktiboari merkatuan egin beharreko lan produktiboa gehitu zitzaion.

Gaur egungo emakumeak ez gaude askoz hobeto. Historiako errepaso azkar honek erakutsi digu amatasun onaren eredu perfektua lortzea denborarekin geroz eta ezinezkoagoa bihurtu dela; izan ere, lehengo ama sakrifikatu eta presenteari, etxetik kanpoko lana eta bizitza publikoa gehitu zaizkio.

BIZITZA ERDIGUNEAN

Eredu patriarkal eta neoliberalari alternatiba gisa, azken urteetan indarra hartzen ari duen haziera naturala edo atxikimenduzko haziera eredua dugu, amatasun intentsiboa ere deiturikoa esparru batzuetan.

Eredu honek bizitza eta zaintza jartzen ditu erdigunean eta beraz, haurraren, -bai jaio berria denean zein ondoren-, premiak eta beharrak ezartzen ditu zentroan.

“Atxikimenduzko haziera” William Sears pediatrik sortutako terminoa da, garapenaren psikologian garatzen den atxikimenduaren teoria ezagunaren hastapenetan oinarritutako filosofia bat da. Asko sinplifikatuz, atxikimenduzko hazkuntzak guraso eta seme-alaben arteko lotura sendoa sustatzea du helburu eta erditze ez medikalizatuen alde, amagandiko edoskitzearen alde, eta haurrarekin ohea partekatzearen alde agertzen da.

Eredu honek ekarpen oso positiboak egiten ditu, zaintzak beharrezkoa duen garrantzia hartzen du, eta interes sozioekonomikoak alboratuz, bizitzaren erritmo eta logikak lehenesten ditu. Haatik, eredu hau ez dago herritar guztien eskura, izan ere, hazierarako beharrezko denbora eskatzen du, eta beraz denen aukera ez den esfortzu ekonomikoa.

Azken hamarkadetan testuinguru ezkertiarretan eta korrante ekologistetan bogan den atxikimenduzko haziera eredu, oso kritikatu izan da. Hazkuntza-eredu honek enpleguan oinarritutako emakumeen askapenerako eredu klasikoaren aurka egiten du eta batzuek etxekoandarearen rol tradizionala indartzen duen esplotazio modu bezala ulertzen dute. Hau da, hala hezten erabakitzen duten emakumeak patriarkatuaren ondoriozko amatasun intentsiboaren ideologian murgilduta daudela uste dute.

Atxikimenduzko hazieraren alde egiten duten feministek horrelako pentsaerek amen gaitasun kritikoa zalantzan jartzeaz gainera, paternalismo handia erakusten dutela kritikatzeko dute. Gainera, esklabo bihurtzen gaituen lan merkatu batean aritzea askatasunaren sinonimo jotzea kritikatu eta zaintzak behar duen lekua aldarrikatzen dute.

EREDUEN ARTEAN DANTZAN

Amatasunean dena ez da zuria edo beltza eta eredu bakoitzak bere alde onak eta bere arriskuak ditu. Kontzienteki edo inkontzienteki eredu baten alde edo bestearen alde jozten dugu. Baina noski, hau ez erabaki erabat librea, bakoitza bere testuinguruari eta aukera ekonomikoei hertsiki lotua eta baldintzatua dago. Hau da, erabaki ideologikoz haratago, bakoitzak ahal duena egiten du. Dituen baldintza eta aukeren arabera, malabarismo ezinezkoak eginez, ahal duen moduan bizirauten du.

Amatasun eredu jakin baten alde egin gabe, amatasun eredu artean talka eta presio gehigarria dago. Emakumeak ama izan ostean bidegurutze askoren artean aurkitzen dira. Ume biologikoa bada, erditze naturala ala medikalizatua; bularra ala biberioia, bularra noiz arte?, lanerako itzulera noiz eta zein baldintzatan... Ataka guzti hauetan zirt edo zart egin beharrean aurkitzen dira amak.

Inkestan partekatutako bizipenetan ikusi daitekeen bezala, ama izateko presioa ama izan baino lehen hasi eta ez da erditzearekin bukatzen. Etxean erditzeko erabakia hartzen dutenak kritika askori aurre egiten diete, baina ospitalean erditzen dutenak ez daude epaiketaz salbu. Hor dago, adibidez, zesarea egiteagatik bere burua errudun egin zuen emakumearen pasartea.

Antzeko egoera bizi dute bularra eman edo ez erabakitzeko tenorean. Bizipenetan bi aukeren alde egindakoak daude eta biek sentitu dute euren burua epaitua.

Bogan diren sare sozial eta komunikabideek ez dute bidea errazten, eta gure iruditegia seme alaben ongizatea guztiaren gainetik lehenesten dituzten korronteetako ama eder eta perfektuekin betetzen dute... Halako baldintzekin zaila da zaintza eta amatasun bide berriak ibiltzea....

KRITIKATIK AHIZPATASUNERA

Eta tamalez, amak eta emakumeak gara presio eta kritika horien iturburua. Askotan bakoitzaren erabakiak justifikatu beharra sentitzen dugulako egiten dugu kritika, emakumeen artean elkar epaitzen ari garela ohartu gabe.

Etxeke andre tradizionalaren eta lan merkatuan presentzia duen amaren arteko guda zaharrari, umeen zaintza erdigunean jartzen duten amak gehitu zaizkie. Eta eredu bakoitza zurruna eta kontrajarria da bestearekin. Zaintzaren ardura baina mahai gainean dauden eredu ezberdinetan emakumeen esku jarraitzen du, eta zaintzaren ardura hau erruz beteta daramagu emakumeok sorbalda gainean.

Ama bakoitzak duen egoera eta testuinguruarekin ahal duena egiten saiatzen dela onartzen badugu, geure artean kritikatu baino, ez da al da eraginkorragoa, ahizpatasunez elkartu eta benetan amatasuna itogarri egiten duen sistema kapitalista eta patriarkalaren aurka elkarrekin jotzea?

KONTZILIAZIOA

Ordaindutako lana eta zaintzaren arteko bateragarritasunak, edo hobe esanda bateragarritasun ezinezkoak ama askoren eguneroko arazoa da eta beraz, lan honetan atal berezitu bat merezi du.

"Bizitzako esparru guztietan pertsona gisa errealizatzeko aukera izan behar dute pertsona guztiek, eta gizartearen ardura da kontziliazio hori lortzea: erakunde, enpresa eta familiena". Halako leloekin ateratzen dira urtero kalera, martxoaren 8aren atarian, gure inguruko erakunde instituzionalak. Kontziliazioa baina iruzur bat dela erakusten digute datuek.

Zenbat emakumek uko egin diote seme alabak edukitzeari bere lan profesionalean aurrera egiteagatik? eta zenbatek uko egin diote euren lanbideari, edo erantzukizun handiagoko postuei, amatasunagatik? Berdina gertatzen al da gizonezkoekin? Lan ordaindian arrakasta izatea, are gehiago soilik bizirik irautea, ondorengoak edukitzearekin kontrajarria da.

Parekidetasunaz eta kontziliazioaz asko hitz egiten da, baina zaintza eta kontziliazioa emakumeen gain uzten jarraitzen da oraindik ere; eta gaur egungo kontziliazioa ezinezkoa kezka iturri da askorentzat. Zaintza, bizitza pertsonala eta ordaindutako lana bateragarri egitea magia egitea da; ia inoren esku ez dagoenez, emakumeen gehiengoari egunero ezinezko malabarismoak egitea egokitzen zaio.

Zaintza, umeena bereziki baina bestelako pertsonena ere, merkatu prekario baten erabat mendekoa da. Soldata baxuek, lan ordu amaigabeek edota ordutegi ezinezkoek definitzen dute gure lan merkatua. Eta lan merkatuan emakumeok bizi dugun egoera, haurrik izan gabe ere, ez da gizonen parekoa. Emakundek agindutako azterlan baten arabera Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako gizonak, batez bestez, emakumeek baino %24 gehiago irabazten zuten 2019an. Arrakala hori bi fenomenok baldintzatzen dute: batetik, lan egindako orduetan %14ko arrakala dago; eta bestetik, orduko soldatan %11ko arrakala -gizonek, lan egindako orduengatik, %11 gehiago kobratzen dute, emakumeek baino-.

Zaintzapean haurrak dituzunean egoera gehiago korapilatzen da. Kontziliaziorako neurriak eraginkorrak ez izatea da emakumeen karrera profesionaletako gaitz handienetakoa da, eta horrek soldata-arrakala betikitzen du. Zaintza premiek hala eskatuta lanaldi osoei edo erantzukizun handiagoa duten lanpostuei uko egiteak,

berekin dakar emakumeek soldata txikiagoak jasotzen jarraitzea eta lan-bizitza amaitzean prestazio okerragoak eskuratzea.

2021ean, Estatu espainolean zaintzagatik lanaldia murrizteko eskaeren %95 emakumeek egin zituzten. Gauza bera gertatzen da eszedentziekin. Seme-alabak zaintzeko eszedentzien %97 eta beste senide batzuk zaintzeko eszedentzien %96 emakumeek eskatu zituzten. Datuak Estatu Espainoleko emakumeen Institutuak urtero egiten dituen ikerketetatik ateratakoa da.


Lanaldi partzialeko kontratuei erreparatuz gero, datuak antzekoak dira: lanaldi partzialean lan egiten duten 4 pertsonatik 3 emakumeak dira.

Inkesta ezberdinek plazaratzen dituzten datuak antzekoak dira. Estatu espainolean Malas Madres elkarteak 50.000 emakume baino gehiagori egindako "El coste de la conciliación" inkestaren arabera, bi emakumetik batek soldata murrizketa izan du ama izan denetik, lanaldia murriztu, eszedentzia hartu edo lana zuzenean utzi behar izan duelako.

Gure inkestarekin kontziliazioaren aferan arakatu nahi izan dugu eta datuek nahiko panorama iluna marrazten dute.

Ama bihurtzeak zure lan-bizitzari eragin dio?

140 erantzun



Inkestatutako emakumeen %95ak amatasunak euren lan ibilbidean eragina izan duela aitortu du.

Amatu ostean, Estatu espainolean emakumeek duten amatasun baimena 1989an ezarri zen. Hamalau egunetik hamasei astera igaro zen orduan. Ordutik, ez da deus aldatu. Tarte honetan aitatasun baimenak asko aldatu eta luzatu dira eta egun, amek bezalaxe 16 aste dituzte.

Ipar Euskal Herrian amek hamasei asteko baimena dute, baina sei aste erditu aurretik hartu beharrean aurkitzen dira amatasuna biologikoa denean. Aitek aldiz, hiru eguneko baimena dute umearen jaiotzagatik eta beste hamaika egun aitatasun baimenagatik.

Umea jaio ondoren laguntza gehiago daude Bidasoa ibaiaren iparraldean, izan ere, hiru urte bete arte 180 euroko laguntza ematen diete hilero gurasoei eta murrizketak diruz lagunduak daude. Lehen umearekin sei hilabetez eta ondorengoekin epe luzeagoz. Baina seme alaba txikienak hiru urteak beteta amaitu egiten dira lanaldiak murrizteko aukerak.


Amatasun eta aitatasun baimenak gainera, ordaindutako lanari lotutako prestazioak dira, beraz, langabezia edo kontraturik gabeko lan merkatuan aritzen diren pertsonak ez dituzte eskumen horiek. Haur jaio berrien zaintza ez luke eskubide unibertsal bat izan behar?

Eta baimen hauek bukatzen direnean zer? Amatasun baimenerako eskubidea duten emakumeek 10 asteetara Ipar Euskal Herrian eta 16 asteetara Hego Euskal Herrian umearen zaintza eta lan ordaindua nola antolatu erabaki behar izaten dute. Lanaldi murrizketek eta eszedentziek paper garrantzitsua jokatzen dute kontziliazio ariketa horretan.

Gure inkesta bete duten emakumeen artean, uneren batean edo bestean eszedentzia hartu du inkesta bete duen %56,1ak eta ia %70 da lana murriztu behar izan duten emakumeak.


Eszedentzia hartu duzu noizbait?

139 erantzun



Lana erremuneratuan baldin bazeunden ama izan aurretik, lanaldia murriztu behar izan al duzu ama izan ostean?

135 erantzun



Baina noski, lan murrizketa eta eszedentzia hartzeko premia eta aukera oso lotuta dago norberaren behar sozioekonomikoekin, eta emakume asko dira lan eskubide hauek hartzeko aukerarik ez dutenak. Batzuk ekonomikoki soldata osoaren premia behar beharrezkoa dutelako aurrera egiteko eta beste batzuk, euren lan egoerak ezinezkoa egiten duelako halako neurriak eskatzea.

Gure inkestatuen artean badira nahi baino murrizketa gutxiago hartzeko egoeran direnak eta hala partekatu dute gurekin:

"Behar bai, baina ezin izan dut hartu egoera ekonomikoarengatik"

"Beharko nuke, kontziliatorako, baina ekonomikoki ezinezkoa zait"

"Ezin izan nuen hartu soldata osoa behar -beharrezkoa zitzaigulako"

Egoera ekonomikoaz gainera, lan kontratuek ere baldintzatzen dute eszedentzia edo lanaldi murriztua bezalako lan eskubideak hartzeko aukera. Elkarriketatuen artean autonomoek bizi duten egoera gogora ekarri nahi izan dute.

"Lana utzi behar izan nuen. Eta autonomia nintzanez, ezin izan nuen eszedentziarik hartu ahal izan".

"Lanpostuz aldatzeko hautua egitea ere ekarri zidan lehen haurdunaldiak, errazago kontziliatzea ahalbidetuko zidan lanpostu bat".

"Era autonoma no tenía derechos, luego estudie para cambiar de trabajo"

Autonomoak izan gabe, badira lan eskubide hauek kolokan kusi dituzten emakumeak gure elkarrizketatuen artean:

"Eszedentzia adin txikikoen zaintzagatik ukatu zidaten aurreko urtean"

Elkarrizketatutakoen artean dezente dira amatasunaren ostean euren lana utzi, euren erabakiz edo kanporatuak izan zirelako, eta euren ibilbide profesionala moldatu behar izan dutenak. Zenbait pasarte partekatu dituzte:

"Lehen alabarekin ezin izan nuen tarterik hartu enpresaria nintzelako eta ez nuen egoera egokirik izan. Bigarrenean 8 hilabete hartu nituen, lanez aldatu ostean"

"Ama izan ostean, kontratua ez zidaten berritu"

"Turnoka lan egiteari utzi behar izan nion, eta hezkuntzaren aldeko apustua egin kontziliazioari begira"

"Lana bilatzerakoan ordutegia da begiratzen dudana lehen gauza"

"Lehenengoz ama izan nintzenean langabezian nengoen eta lana bilatzeko garaian lan murriztuaren alde egin dut beti".

"Zazpi urte daramat, eszedentzian ez bada (4 urte) lanaldi murriztuan. Ibilbide profesionalean geldialdia ekarri dit, gutxiago inplikatzeari, lanbidea aldatzea..."

Elkarrizketatuko emakumeek, lehen aipatu bezala, eszedentzia eta lan murrizketaren aukerak erabili dituzte maila handi batean eta hauen luzapena erabat desberdina da kasuak kasu. Batzuetan jaio osteko baja luzatzeko baliatu dituzte bi aukera hauek, eta beste batzuetan hamar urte baino gehiago luzatu dira egoera hauek.

Emakume batzuk urte osoan modu iraunkorrean murrizten dute euren lan jarduna baina beste batzuk bestelako formulak erabiltzen dituzte lan ordaindua eta zaintza uztartzeko.

"Eskolak goizez edo oporretan izan diren garaietan hartzen ditut baimenak"

"Udan soldatarik gabeko baimenak hartu izan ditut"

"Pandemian lana murriztu behar izan nuen, ezinezkoa zen bestela"

Seme-alaben zaintza lanak emakumeen bizkar egoteak ondorio asko ditu lan ibilbideetan: kotizazio etenaldiak, jardunaldiaren murrizketak, kotizazio oinarri txikiagoak, eszedentziak... eta honek guztiak orainean ez ezinik lan ibilbidearen garapenean eta ondorengo prestazioetan ditu ondorioak; pentsioetan ere genero arrakala egon badagoelako.

GURASO BAKARREKO FAMILIAK

Kontziliazioaz ari garela, guraso bakarreko familiek bizi duten egoera nabarmendu beharreko elementua da. Guraso bakarreko familiaz hitz egitea familiaz hitz egitea baino askoz gehiago da. Emakumeaz hitz egitea da, amatasunaz hitz egitea da, beren bizitzetara eragiten dieten politikez hitz egitea, eta beren (eta beren seme-alaben) eskubideek gure gizarte-sisteman duten menderotasun-egoeraz hitz egitea ere bada. Guraso bakarreko familien % 81,1ean emakumea da heldu bakarra eta honek beharrezkoa egiten du guraso bakarreko familiaren gaiari genero-ikuspegitik heltzea. Guraso bakarra izateak errenta-maila murrizten du kasu gehienetan, eta hori arazo bat da enpleguari dagokionez. Kontuan izan behar da gainera, sostengatzaile nagusia gizona den guraso bakarreko familiek diru-sarrera handiagoak dituztela ama buru duten guraso bakarreko familiek baino, hala dio bederen Espainiako bazterkeriari eta garapen sozialari buruzko FOESSA VIII. Txostenak.

"Egoera ahulagoa bizi dugu. Gure soldata besterik ez dugu, eta hau arriskuan egonez gero, dena eroriko zaigu gainera".

Guraso bakarreko familia gehienak emakumeek osatuak dira eta horrek arriskuan jartzen du emakume hauen karrera profesionala.

"Lanean mailaz ez igotzea erabaki dut. Igotzen bazara, denbora gehiago igaro behar duzu lanean, eta agian ez zaizu komeni, norbait kontratatu behar baituzu zure seme-alabekin egoteko".

Egoera hori arintzeko, neurri gehiago garatu beharko lirateke familia-erantzukizun partekatuak ez dituzten amen lan-merkaturako eta euren sustapen ekonomiko eta sozialerako sarbidea bermatzeko, betiere guraso bakarreko familien berezitasunak kontuan hartuta.


Seme-alaben zaintza da gainera, guraso bakarreko familientzako arazorik handiena. Bi esku eta familia sare bakarra dutenez eskura, adingabeak zaintzea konplikatuagoa izan ohi da.

ETA GIZONEK ZER?

Inkestatutako emakumeen %95ak amatasunak euren lan ibilbidean eragina izan duela aitortu arren, dirudienez ez da berdina gertatzen euren bikoteen lan ibilbidean (gehiengoa gizonezkoa).

Bikotea baldin baduzu, zure bikoteak murriztu behar izan al du bere lanaldia?

134 erantzun



Lana murrizteko eta eszedentzia hartzeko eskubidea gizon eta emakumeek duten arren, inkesta egin dutenen kasuan euren bikoteen %ia 71ak ez du bere lan ordutegia moldatu haurra jaio denetik.


Erabat feminizatuak daude lana murrizteko eta eszedentzia hartzeko eskubideak eta gizartean eta lan esparruan horrela ikusiak dira oraindik ere.

"Bikote mutilaren kasuan, eskubidea izan arren, eskatuz gero kaleratzeko arriskua zegoen"

KONTZILIAZIOA ENPRESETAN

Ba al dago kontziliaziorako neurririk zure enpresan?

137 erantzun



Enpresetan ordaindutako lana eta zaintza uztartzeko dauden laguntzen inguruan ere aritu gara inkestan eta %58,4ak kontziliazio neurriak hartzeko aukera baduela aipatu du. Ohikoena umeak 12 urte egin arte lan murrizketa eskatzeko aukera da, bai eta haurrak 3 urte egin arte, eszedentzia eskatzeko aukera.

Legeak babesten dituen eskubide hauetaz gainera, zenbait enpresetan bestelako aukerak ikusi ditugu. Hala nola, etxetik lan (tele-lana) egiteko aukera edota ordutegi malgutasuna, bereziki sartu eta ateratzerako orduan, eta soldata gabeko baimenak hartzeko aukera ere.

Eskolako egokitapena egiteko baimen bereziak edo seme-alabak eta gurasoak medikura laguntzeko urteko ordu kopuru bat ere agertu dira indarrean dauden kontziliazio neurri gisa.

Amatasunak bultzatuta euren lan ibilbide propioa hasi duten emakumeak ez dira gutxi eta halako proiektuetan malgutasuna ohikoagoa izaten da.

"Kooperatiba txiki bat gara eta flexibilitate handia dugu"

"Protokolo zehatz bat garatu dugu honi aurre egiteko"

ETXE BARRUKO LAN BANAKETA

Etxe barruko kontziliazioa ere gatazka askoren iturburua da. 2021ko Eustateko datuen arabera, emakumeek egiten dituzte etxeko lanen %67,2 Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan. Gainera, datuak okerrera egin du, 2013an etxeko lanen %66,7z arduratzen baitziren emakumeak.

Egoera horrek isla du gizonek eta emakumeek etxeko lanak egiten igarotzen duten denboran. Gizonen %89k bi ordu edo gutxiago igarotzen dituzte etxeko lanak egiten. Beste muturrean daude emakumeen %27,5, egunean hiru ordu edo gehiago pasatzen baitituzte etxeko lanak egiten.

Badago aldea gizonek eta emakumeek egiten dituzten etxeko lanen artean ere. Zaintza lanei dagokienez, emakumeek egiten dituzte hezkuntzari eta haurren, adinekoen nahiz gaixoen zaintzari lotutako lanen %65. Janariari lotutako eginbeharren —erosi, kozinatu, ontziak garbitu...— %69 ere emakumeek egiten dituzte, baita etxeari lotutakoen—erosketak egin, garbitu, konponketak egin...— %62 ere. Desoreka oraindik eta nabarmenagoa da arropari lotutako lanetan —arropa erosi, garbitu, lisatu...—, emakumeek egiten baitituzte lan horien %83.

Desberdintasunak mantendu egiten dira 15 urtetik beherako seme-alabak euren kargura dituzten emakumeen eta gizonen artean ere. Batzuek zein besteek etxetik kanpora lan eginda, emakumeek 4,7 ordu pasatzen dituzte seme-alabak zaintzen; gizonek, berriz, 3,3 ordu. Gainera, emakumeen %50,6k bost ordutan edo gehiagotan zaintzen dituzte adin txikiko horiek; aldiz, gizonen %24,6k pasatzen dituzte hainbeste ordu. Menpekotasunen bat daukaten pertsonak zaintzea ere emakumeen gain geratzen da: emakumeak batez beste 2,3 orduan aritzen dira horretan, eta gizonak, ordu eta erdian.


Emakumeek egiten dituzten lan horiek guztiek barne produktu gordinaren %18,6 izango lirateke; gizonek egindakoak, aldiz, %9,1.

Datuek beraz, zaintza lan hauek emakumeen gain geratzen direla erakusten dute.

Gure inkestan ateratako datuak ez dira hain kaxkarrak eta antzeko kopurua da umeen hazkuntza bere bikotekideekin behar bezala partekatzen dutela diotenak eta ez diotenak. Biak %45aren bueltan daude.

Ama bazara konpainian, uste duzu zuzen partekatzen duzula umeen hazkuntza?

131 erantzun




Txikia bada ere, ezberdintasuna dago etxeko lanak (erosketak, garbiketa, sukaldatzea...) eta umeek dakartzaten jardueren koordinazioa eta arduraren artean. Etxeko lanak modu orekatuan banatzen dituztenak %55,1 diren bitartean, umeen jardueren arduraz modu orekatuan arduratzen direnak %48a dira.

"Bikoteko lan banaketan 13 urte hauetan hobekuntzak nabaritu ditut, ardura gehiago hartzen ari da gizonetako (sukaldean, elikagaien erosketan, medikuak, eskolaz kanpoko jardueretan) baina oraindik antolaketa eta koordinazio kontuan asko falta da"


Etxeko lanak modu ekitatiboan egiten dituzue etxeko heldu guztiek?

136 erantzun



Egunerokotasuneko jardueren koordinazioa eta ardura partekatzen duzu? (bilerak, pediatria, kanpo ekimenak, arropa erostea...)

137 erantzun



Inkestan ateratako datuak nahiko baikorrak dira, baina ez da berdina gertatzen antzeko bestelako inkestetan. Estatu espainolean Malas Madres elkarteak 50.000 emakume baino gehiagori egindako eta aurrez aipatutako "El coste de la conciliación" inkestan oso galdera zehatzak egiten zituen eta hauexek dira ateratako zenbait ondorio:

- Amen % 65a adingabeen emozioak kudeatzeaz arduratzen dira.
- Emakumeen % 70 seme-alaben adiskidetasun-harremanez arduratzen da
- Emakumeen % 71 eskolak bideratutako etxeko lanen gainean dago (kasuen % 3an bakarrik egiten du bikotekideak).
- Premia bereziak dituzten haurren kasuan, aldea handiagoa da, kasuen % 93an ama arduratzen baita terapiak kudeatzeaz.
- Urtebetetze-jaiak antolatzearen ardura % 79an amen esku dago.
- Ikastetxeko Whatsappeko mezu elektroniko eta taldeentzako arreta % 83an amen ardura da.
- Bazkarien eta afarien plangintzak egitea % 69an amen ardura izaten jarraitzen du.

NEKE MENTALA

Lanaldi bikoitzak, lan-merkatuan eta etxeko eremuan, kostu emozional eta pertsonala handia eragiten du emakumeengan eta bereziki amengan. Haurren eskolaz kanpoko jardueren ordutegia, pediatrien hitzorduak, eskolako bilera, etxeko erosketak, arropa,


opor egunetan antolatzeke plangintza... denbora exijitzeaz gainera, koordinazio asko eskatzen duten lanak dira. Emakumeak elementu hauek guztiak buruan eta alerta egoeran daude, ezin deskonektatuz egin behar hauetaz. Emakumeok gure burua bitan banatu behar dugu enpleguaren eta zaintzaren beharrei erantzuteko eta bi esparru hauek erritmo eta logika ezberdinak, eta askotan kontrajarriak, erabiltzen dituzte.

Inkesta bete dutenen %80 baino gehiagok onartzen du amatasunak eta honek eragiten duen zamak euren osasun mentalean eragina duela. Estresa edo antsietatea sentitu izan duela aitortzen du %80ak baino gehiagok.

Amatasunak eta eragiten duen zamak zure osasun mentalean eragina izan duela uste duzu?

Estresa edota antsietatea sufritu duzu?

137 erantzun



Larria da oso emaitza hauek erakusten duten egoera. Bildutako kontakizunak ere zer prentsa eragiten dute.

"

"Lo gutxi egitearen ondorioak oso kezkarriak dira"

"Autoexijentzia latza da eta jendarte antolaketa oso eskaxa"

"Espetxetik bizitu dut amatasuna, errua ez dut sentitzen baina mina eta pena bai"

"Ondo ari zaren, edo ez, sentitzea eta agian jendeak ez du txarrean esaten baina..."

"Haurrak jaio berriak zirenean, oso gogorra egin zitzaidan. Geroago, ikasketetan dituzten arazoengatik ere, dexenteko estresa sentitzen ari naiz".

"Batez ere lehen hilabeteetan, emozioen kudeaketan gorabeherak izan nituen, beldurra, antsietatea, ezinegona... Baita nire burua ezin identifikatzearen sentsazioa"

"Bereziki, nik dena (lana, zaintza...) eta dena ondo egin behar dudana ideiak nekatu egiten nau. Emakume ahalguztidunak izan behar dugun horrekin nazkatua nago!"

*"Ezin iritsi nabil egunero... laneko betebeharrak bete gabe... etxera nekaturik iritsi..
semeekin gozatzeko zailtasuna..."*

"Amatasun baimenean bakardadea sentitu dut, neke eta tristura handia"

*"Autoexijentzia eta gizartearen exigentzia ezin bete, sentitzen den errua handia da laz
antsietatea izan nuen asko, eta hilabete batzuk terapiara joan behar izan ditut. Barruko
epailea oso presente, errua. Karga mentalak eragiten du guztia"*

*"Ez dut gaixotasun mentalak pairatu baina amatasunak nire ongizate mentalen eragiten
duela ez dut zalantzarik".*

*"Lanean ardurak badituzu 3 seme hazteak eragiten duen estresa ez da makala, baina
egoera kudeatzeko lan murrizketak emakumeak hartu behar izateak ere haserrarazten
nau. Nik administrazioan lan egiteak eta bikoteak enpresa pribatuan ere badu eragina,
baina ez da horregatik bakarrik izan. Gizonek gizarteari aurre egin behar diote eta
ausardia edo marea indartsu bat behar da horri aurre egiteko"*


*"Nik ez dut bizi halako egoerarik, baina badakit lanketa oso kontzientea egin dudala
nire etxean, harremanetan... eta beti beti onartu laguntza, deskantsatzeko bazen ere."*

PANDEMIAREN ERAGINA

Zaintzak dakartzan konplikazioei 2020. urtean Covid19ak eragindako pandemia eta konfinamendu egoerak gehitu behar zaizkie. Koronabirusak ekarri zuen itxialdiak inoiz baino nabarmenago utzi zuen "gizarte familiarista" batean bizi garela eta etxeko lau pareten artean bizi ziren horien artean antolatu behar zen lan ordaindua eta zaintza lanak. Etxe barruan baina, orekarik ez, eta emakumeek jasan zuten zama latzena.

2020ko martxoaren 13an eskolako atea itxi zituztenetik hurrengo iraila arteko epea "eromena" izan zela onartu dute inkestatuek baina gehienek ez dakite erantzuten pandemia egoerak hobera edo okerrera egin zuen hazkuntzarekiko zuten harremana.

Pandemiak hobera edo okerrera egin du hazkuntzarekin duzun harremana?
132 erantzun



Alde bateko eta besteko iritzia jaso ditugu. Badira garai hura positiboki baloratzen dutenak:

"Autonomoa izanik, gelditzera behartu nau, gehiago egoteak nire behar eta gogo batzuekin harremanetan jarri nau, eta geroztik nire lan orduak nire amatasunaren beharren arabera ere moldatzen ditut"

"Denbora gehiago haurrarekin, ondorioz, komunikazio gehiago izan dugu"

"Mundua geratu eta sozializazio murriztuz errazagoa egin zait haur txikiak izatearen fase hau, bestela ere sozializatzeko aukerak murrizten dira"

"Konfinamendua opari bat izan zen niretzat eta haurrentzat. Oso oroitzapen onak ditugu".

"Eguneroko erritmoa kuestionatu eta gauza berriei erreparatu. Egin gutxiago, egon gehiago".

Pandemia eta konfinamendu egoerei bere alde ona ikusi diotenak baldin badaude ere, asko dira garai horietan egoera gogorrak igaro zituztenak. Hemen gurekin partekatutako batzuk:

"Itxialdian eta deseskaladan lan ordaindua eta 3 urteko bi haurren zaintza/heziketa espazio eta denbora berberean bateratu beharrak eragin handia izan du nigan: erruduntasuna hurrekiko harremanean; zaintzan eta enpleguan bietan ezin iristearen sentsazio itogarria; ziurgabetasuna; "behar bezalako" erreferente bat ez izatearen sentsazioa..."

"Amak gure artean sortzen dugun harreman sarea apurtu du. Harreman sozialak moztuz eta niretzako hartzen nituen kit-kat ak desagertu ziren"

"Itxialdiak zaintza etxeko nukleora murriztu zuen ia erabat. Etxean heldu bakarra izanik, oso itogarria izan da."

"Pazientzia murriztu dit, besteekin konparatzeko joera handitu dit"

"Bakarrik bizi naiz umeeekin, aita espetxean dagoelako eta oso gogorra izan zen konfinamendua (semeetako batek terapia behar izan du), aitarekin aurrez aurreko bis-bisak bi urtez etenda izan ditugu horrek beren garapenean eta aitarekiko harremanetan duen eraginarekin eta ondorengo neurriek (eskola kirola ez, udalekuak ez...) guztia zaildu digu"

"Antsietatearekin bizi izan dut, haurretaz deskonektatzeko beharra..."

"Itxialdian oso zaila izan zen. Ama, langile, irakasle...Gerora lagunengandik urruntzea ekarri du, isolamendurako joera handitu eta honek lagunarteko hezkuntzari kaltea eragin dio"

"Amatasunak baino etxeko lanen ez banaketak eragiten du ezinegona eta pandemiak ere hau areagotu du osasun mentalean eraginez, horrek haurrengan eragin zuzena dakar norbere ongizate ezak "indarkeria" / "bortizkeria" areagotzen baitu eta umeeekin ordaindu"

"Pandemia ondoren egoera antsioso depresibo batean erori nintzen aurrez bizitako urte t'erdi luzearen ondorioz"

"Harremanak murriztu ditu konfinamenduak eta ondorengo egoerak, lagun sareak galdu dira"

Pasarte ilunetan argi-izpiak ikusteko ohitura dugu eta pandemiari ere bere alde ona ikustearren, zaintza lanek hartutako zentralitatea dago. COVID-19aren krisiak nabarmen aldatu zituen agenda eta lehentasun politiko eta sozialak, eta ordura arte soilik mugimendu feministak aldarrikatzen zuen zaintzaren gaia ikusgarri izaten hasi zen. Dirudienez ikusgarritasun hori, etxeetan ere nabaritu zen:

"Bikotea pandemian zehar konturatu da lehen kontziente ez zen gauzekin"


"Lana parekatuago dugu etxean konfinamendutik hona"

ETA NI NOIZ?

Neke mentalari estuki lotuta dago hazkuntza eta bizitza pertsonalaren arteko oreka, edo oreka eza, izan ere urruti dagoen helmuga da honakoa gaur egun. Inkestatutako emakumeen erdiak baino gehiago oreka hori lortu ez duela dio, eta soilik %30ak lortu du; askok, baina, umeak hazten joan diren heinean.

Bizitza pertsonalaren eta hazkuntzaren arteko oreka lortu duzu?


138 erantzun



Amatasunaren hautuak beste bide eta aukera batzuk moztu egiten ditu. Hala ondorioztatu daiteke erantzunak ikusita, izan ere, inkestatuen %73,7ak aitortzen du gauza askori uko egin behar izan diola ama izatea erabaki zuenetik.

Gauza askori egin behar izan diozu uko ama izan zarenetik?

137 erantzun



Amatasuna medio, emakume askok egin gabe utzi dituen egiteko eta praktikak asko eta askotarikoak dira, zerrenda amaigabea ia... Hemen bildutako zenbait adierazpen, zerrenda horren adibide gisa:

"Lagunei, lagunen zaintzari, irakurketari zein kirolari."

"Denbora libreari, atzerrira bidaia luzeak egiteari, kalitatezko loa izateari."

"Ikasketak, afizioak, harremanak, bidaiak"

"Lan-bizitza, gizarte bizitza, bikote harremana eta egoera ekonomiko dezente bat atzean utzi dut ama naizenetik."

"Inprobisazioari, neure espazioa modu estable batean izateko aukerari, bidaiatzeari, bikote harremanari, neure ongizatea nik erabakitzen dudanaren kontzientziari"

"Lan profesionalari, lagunekin egoteko denbora ez dut apenas izaten/hartzen, bikote harremana...."

"Oro har nire buruaren zainketari: deskantsuari, elikadura egokiari, nire aisialdiaz disfrutatzeari..."

"Militantziari, lagunekin lasai egoteari, kultur ekitaldiei, kirola eta aisialdiari"

"Adiskideak, lana, aisialdia, gauetan atera ahal izateko askatasuna..."

"Saiatzen naiz moduak bilatzen.... Baina niretzat denbora izatea, oporretan deskantsatzea, lanari nik nahiko niokeen guztia dedikatzea, bizitza soziala..."

"Urte batzuetan gaueko parrandei uko egin diot, lagunei denbora gutxiago dedikatzea, uko egin diot profesionalki formakuntzak eta lan esperientziari eszedentzia eta murrizketekin. Uko egin diot soldatari 4 urtez..."

"Harreman asko alboratu ditut, nahi bezala ez zaintzeagatik. Zaletasunak (kirola), Autozaintza asegarría."

"Lagunekin iluntzeetan paseatzeari, asteburu-pasei lagunartean, bizikleta irteerei, kontzertuei..."

"Nere herrian bizitzeari uko egin behar izan diot, lagun sarea gertu edukitzeari, lagunekin nahi beste egoteari, lana murriztuan egiteari, kirol ikastaroei, militantziari, hitzaldi/ekitaldietara jutea zaila izan ohi da..."

"Libre izateari utzi behar izan diot"

"Arlo pertsonalean, profesionalean, etxean laguntzeko dudana bikotea da. Edozertarako bere laguntza behar dudala sentitzen dut, beraz nire aisialdia da azkenerako uzten dudana."

"Sormenarekin eta 'lan ez produktiboa'rekin lotutako tarteak, 'ardurarik gabe' bizitzea, dirua 'soberan' izatea, bikotekidearekin espazioa, bizitza sozial askea, denbora librea.... hein batean, denbora aurrera joan ahal gutxituz doaz alboratu beharrak eta espazio pertsonalak berreskuratuz".


"Batetik, norberarentzako aisialdia ez da esistitzen, gaueko yogurta jatea aisialdia ez bada behintzat. Bestetik egoera ekonomikoa erabat okertu da, horrek dakartzan ondorioekin"

"Denbora eta espazio propioak galdu ditut"

Emakumeek partekatu dituzten pasarteekin ikusten den bezala asko eta askotarikoak dira amatasunak dakartzan eragozpenak. Norberaren bizitza pertsonalari eskaintzen zaion denbora kuantifikatzeko eskatu diegu inkestatuei, 0tik 10rako segida batean, eta lortutako emaitza gutxiegi da; izan ere inkestatutako emakumeen ia %60 0tik 4 arteko kopuruak ipini ditu.

Otik 10era zenbat denbora eskaintzen diozu zure bizitza pertsonalari?

138 erantzun



Emakumeen bizitzetan garrantzitsuak diren espazio eta denbora tarte ugari alboratu beharrean aurkitzen dira zaintza lanak medio, eta momentuan uko txiki gisa ikusten ditugunak, gerora gabezi handiak ekar ditzaketela erakutsi dute inkesta bete edo Atsolorrak saioetara gerturatu diren emakume helduenek.

"Hasierako hilabete eta urteetan etxera eramaten zaitu amatasunak, bakardadera, eta momentuan garrantzi asko ematen ez diozuen espazio eta harremanak galtzen dituzu. Urteetara ohartzen zara harreman horien gabeziak eta zure bizitzan izan zezaketen pisuaz. Geure burua zaintzen eta apur bat bada ere lehenesten irakatsi beharko ziguten"

"Gaur egun sarritan ez da ezin dudalako, nitaz dagoeneko ahaztu egiten naizelako baizik".

"Es muy difícil compaginar maternidad y otras actividades, que vas dejando. Al principio no parecen importantes, con el tiempo te das cuenta que te hubieran venido bien a nivel personal"

Ukoen zergatia amatasuna baino, gure egunerokoa sustengatzen duen sisteman dagoela iritzi dio batek baino gehiagok.

"Ama izateagatik ez, nire aukera izan baitzen, gure gizarte sistema familien egoerekin bat ez datorrelako izan dira ukoak".


"Bizitza pertsonalaren barruan kokatzen dut nik amatasuna ere. 3 baloratu dut niretzat denbora nahikoa hartzen ez dudala. Honetan amatasunaz gain jendarte eta bizimodu ereduak, bestelako presioak... ere eragiten dute"

HAURREN KANPO ZAINITZA

Haurren kanpo zaintzarako dauden baliabideak erabat eskasak direnaren iritzia erabat zabaldua dago. Izan ere, inkesta bete duten emakumeen %87,1ak uste du dauden baliabideak ez direla nahikoak haurren zaintzarako.


Haurren kanpo zaintzarako baliabide nahikoak daudela uste duzu?

140 erantzun



Hautzaindegien prezioa egokia iruditzen zaizu?

141 erantzun



Baliabide horien prezioa gehiegizkoa dela ere iritzi diote %75ak. Baina badira, prezioak baino dauden soldatak eta diru laguntzak urriak direla uste dutenak.

"Prezioak ez dira garestiak, soldatak eta laguntzak ez dira nahikoak"

Haur txikiaren zaintzarako dauden baliabideak eskasak izateaz gainera, beste zenbait eragozpen badituztela ekarri dute gogora inkestatu batzuk:

"Ratioak gehiegizkoak dira haurtzaindegi klasikoetan".

"Udako ludoteka pribatuak garestiegiak dira eta publikoek ez dute ezer konpontzen 4 ordu eskasekoak direlako eta azkenean kanpoko laguntza behar du, nahiz eta nik 5 ordu bakarrik lan egin"

"Norbait kontratatzeaz gain, landa ingurunean dauden baliabide urriek aiton amonengana jotzera eramaten gaituzte"


Asko hitz egiten da tribuaren beharraz zaintzan, hau da, familia biologikoa edo diru trukea tartean egon gabe, lagunen arteko zaintza sareaz. Haatik, errealitateak familia biologikoaren ardura eta beharra erakusten du modu gordinetan.

Etxean moldatzen ez zarenean norengana jotzen duzu? galdera luzatu dugu inkestan eta galdera hau erantzun duten 134 emakumeetatik % 84,3ak argi esan du etxean haurren zaintzarekin moldatzen ez direnean familiarengana jotzen dutela lehen aukera gisa. Inkestatutako %11,2ak norbait kontratatzen du zaintzarekin laguntzeko, noski, argi dago aukera hau egoera ekonomikoari estuki lotutakoa dela.

Inkestaren emaitzek erakusten dutenez, %4,5ak soilik, familia biologikorik ezta ez dirurik tartean ez dauden soluzioen alde egiten du lehen aukera gisa.

Etxean moldatzen ez zaretenean norengana jotzen duzu?

134 erantzun



AITON AMONEN PAPERA

Honek alde batetik, familia eta bereziki aiton-amonen figura jartzen du mahaigainean. Aiton amonak biloben zaintzan jokatzaren duten papera izugarria da. 2010ko datuen arabera, aiton amonen %50ak bere bilobak zaintzen ditu ia egunero. Hemen ere genero arrakala dago, izan ere, nahiz eta aitonek ere zaindu, amonek ordu gehiagotan aritzen dira egiteko honetan. Estatistiken arabera, egunero ia 6 orduz aritzen dira umeen zaintza.

Kontutan hartu behar da dependentzia bikoitza sufritzen dutela aiton amona hauek, izan ere, eurak zaintza jasotzaileak diren arren, zaintzaile paperean aritzen dira. Zenbait ikerketek "amona morroiaren sindromeaz" ere mintzo dira, aukeratu ez duten zaintza lanek dakarten pisuagatik.

ZAINITZA KATE GLOBALAK

Familia biologikoak haurren zaintzan duen funtsezko paperak, familia gertu ez dutenen egoera nabarmentzea dakar. Inkesta bete dutenen artean badira, familia sarea ez duten amak eta gabezi honek dakartzan arazoak ekarri dituzte gogora.

"Oso laguntza gutxi daukagu familiaren partetik"

"Lan aldaketaren arrazoi nagusia izan zen printzipioz gure artean konpontzeko gai izatea. Eta amonak eta aitonak nahi duten guztietan haurraz disfrutatzea baina betebeharrak izan ez dadin"

Eta noski, testuinguru honetan ezin ahaztu emakume migratuen egoera, askotan gurera bakarrik edo seme-alabekin etorritako ama horien egoera. Emakume horien etorrera gainera, zaintza lanen krisiari estuki lotura dago. Lan ordaindua eta zaintza lanak bateratzeko ezintasunaren aurrean, etxe askotan jotzen da zaintza lanak azpikontratatzera. Eta normalean, diru oso gutxiren truke emakume etorkinak dira eginbehar horiek egiten dituztenak.

Emakume etorkinak dira oro har gure aiton-amonen kargu egiten direnak, gure etxeak garbitu eta umeak zaintzen dituztenak. Paradoxikoki gainera, askotan gure seme alaben kargu egiteko, euren seme alabak sorterrian utzi behar izan dituzte, askotan beste emakumeen esku. Fenomeno honi, zaintzaren kate globala deitzen zaio.

TRIBUAREN BEHARRA

Familia biologikoaz haratago doazen zaintza ereduen alde egitea ezinbestekoa da. Familia geroz eta txikiagoak ditugu, eta beraz laguntza eskaini dezaketen norbanakoak gutxiago dira. Arkitektonikoki ere modu isolatuagoan bizi gara, bakoitza bere pisuan, familia ugari batzen zituen baserrien ordeaz... Baina behar material bat izateaz gainera, aldarrikapen ideologiko bat izan behar du. Zaintza familia nuklearretik kanpo kokatu behar dugu.

Afrikako esaldi zahar baten arabera, ume bat hezteko tribu oso bat behar da. Esaldi honek zaintza kooperatibo edo komunitarioaren alde egiten du.

Geroz eta indar gehiagoz entzuten den aldarria da zaintza komunitarioarena eta dituen onurak handiak dira. Egindako saioetan eta inkestan maiz aterata da tribuaren beharra eta nahiz eta martxan jartzeko zailtasunak egon, modu antolatuan edo naturalki, geroz eta gehiago sortzen den zaintza ereduak da honakoa.

Hona hemen zaintza sare hauen premiaren inguruan inkestan parte hartu duten lagunek partekatutako iritzia eta bizipenak:

"Zaintza komunitarioak baloreen jarri behar dira, guztion zaintzen ardura eta goxamen kolektiboa"

"Baliabide publiko eta komunitarioak behar dira haurren zaintzarako. Geroz eta jende gehiago dago zaintza sare oso mugatuarekin, eta baliabide urriekin. Horrek emakume askorengan, baina ez bakarrik, eragin kaltegarriak ditu (buru osasunean, lan bati baietz esaterakoan...). Baina bereziki haurrengan".

"Lagun sarea egunerokoan txertatzea oso zaila da gertu ez bizita"

"Lagunengana ere asko jotzen dugu. Lagun sare oso sendoa eta laguntzeko joera handikoa dugu, zorte galanta gurea. Nahiko gurasotasun lagundua izan dudala uste dut alde horretatik."

INDARKERIA MATXISTA

Kontutan hartu beharra dago ere amatasuna, -pobreziarekin, mendekotasun ekonomikoarekin eta desgaitasunarekin batera-, indarkeria matxistaren biktima diren emakumeak ahulago bihurtzen dituen faktore bat dela. Hala ondorioztatu du Etxe barruko Indarkeriaren eta Genero Indarkeriaren aurkako Behatokiak, izan ere, Estatu espainolean 2016, 2017 eta 2018 urteetan indarkeria matxistagatik hildako emakumeen laurik hiru amak ziren.


Amatasuna eta indarkeriaren arteko harremanaz galdetu diogu Garazi Plazaola Ugarte abokatuari. Plazaolak, Macarena Mugica Urbistondorekin batera, ohiko abokatutza edo jardun juridikoa beste modu batera aurrera eramateko motibaziotik sortu zuen Irule abokatuak. Ordutik zerbitzu juridiko eta psikosoziala, ikuspuntu feministatik aurrera eramaten saiatzen dira.

Euren lan jardunean maiz aritzen dira indarkeria matxistako biktimekin eta argi dute indarkeria kasuak edozein adinetako emakumeek, haurrak egon edo ez, sufritzen dituztela. Plazaolaren ustez indarkeria ematea ahalbidetzen duten elementuak "zaugarritasun ekonomikoa, mendekotasun emozionala, sostengu sozial falta" dira. "Nik ez nuke amatasuna bere horretan indarkeria sufritzeko arriskuarekin lotuko, egia dena da, baina amatasunak askotan badakarrela lehen aipatutako zaugarritasun ekonomikoa, bakardadea, beraz sostengu sozial falta edo mendekotasun emozionala; beraz ez da amatasuna bere horretan zaugarri egiten gaituena, baizik eta sistema honetan ama izatea da zaugarri egiten gaituena".

Plazaolaren iritzia zabaldua dago emakumeen artean eta gure inkestatuen %97tik gora uste du amatasuna bateragarri egiteko hartzen diren eszedentzia eta lan murrizketek emakumeak egoera ekonomiko baxuagoan uzten dituela.

Eszedentziak edo lan murrizketek emakumeak egoera ekonomiko baxuagoan uzten dituela uste duzu?


142 erantzun



Menpekotasun ekonomiko hori emakumeak are zaurgarriago bihurtzen gaituela ere iritzi dio inkesta bete duten gehienek. Zehazki, %88 pasatxok uste du hori.

Menpekotasun egoera honek, zaurgarriagoak bihurtzen gaitu emakumeak?

137 erantzun



"Umeen zaintza aurrera eramateko lanbidea utzi eta soldatapeko lana ez egitegatik zaurgarritasun egoera nire azalean sentitu eta horrek beldurra piztu dit"

Indarkeria matxista sufritzen duen eta ama den emakume batek zama bikoitza duela uste du Plazaolak. "Amatasunak, bereziki lehen hilabete eta urteetan, dakarren pisuarekin, emakumeek ez dute euren burua zaintzen eta beraz zaildu egiten da

indarkeria egoeratik ateratzeko indarrak eta baliabideak lortzeko prozesua. Biziraupen egoera horretan zauden bitartean zaila da tartearak hartzea eta egoerari buruzko kontzientzia hartzea, eta ondoren indartu eta hortik ateratzen hastea".

Aipatutakoaz gainera, biktimek izan ohi duten errudun sentimendua, erasotzailearen ongizatearen gaineko erantzukizun sentimendua eta beldurra gehitu behar zaizkio; bai emakumearengatik beregatik eta baita harrengatik ere.

Irule abokatuek salatzen dutenez, ama den emakume batek "gainontzeko edozein emakumek jasan ditzakeen eraso berdinak jasan ditzake, eremu zibil batetik hasita, bizitzaren kontrako delituetaraino, haurren aurkako erasoak gehituta. Kasu horietan oso latzak eta anitzak izan daitezkeenak".

Eta zer nolakoa da umeen egoera indarkeria matxista sufritzen duten testuinguruan? Galdera horixe bera luzatu diogu Plazaolari eta prozesu judizialetan haurrak "aldi berean, interesdun handienak eta ahaztuenak" direla uste du. "Nahiz eta lege berriarekin zentzu honetan aldaketak datozen, gaur gaurkoz ez daude integratuta umeak babestu eta entzungo dituzten neurriak", salatu du.

Indarkeria matxistaren testigu izatea haurren osasun fisiko eta mentalean eragin handia duela ekarri du gogora abokatuak; "askotan urte luzez jasaten dute egoera da, beldurra nagusi da eta haren aurrean estrategia desberdinak ikasten dituzte; gelan ezkutatu, isilik geratu...".

Prozedura judizialetan haur gehienak ez direla posizionatzen azaldu du abokatuak, finean haurrek ez dute inor traizionatu nahi eta batzuetan salatzeko beldurra ere egoten da.

Haurrak biktima bihurtzen dituen Indarkeria Bikarioa "gehiegi ikusten ez den errealitate bat dela" ekarri nahi izan du gogora abokatuak eta komunikabideetan ateratzen diren kasu lazgarri eta muturrekoez gainera, "dezente" gertatzen den indarkeria da bikarioa.

Batez ere, banaketa kasuetan gertatzen dela mahai gaineratu du, "aita erasotzaileak haurren kontrako indarkeria psikologikoa, ekonomikoa edo bestelakoak eragiten dituzte ama izorratzen jarraitzeko. Hau oso ohikoa da. Kontaktua mantentzeko kanal bat dira seme alabak".

Horiek horrela, indarrean den zaintza partekatuen legeak batere onik ez duela egin, salatu du; "Indarkeria dagoen harremanen gehiengoa zibiletik joaten da eta zaintza partekatuekin bukatzen dute. Indarkeriak jarraitzeko bidea egiten du zaintza partekatuek."

Datuen arabera indarkeria sufritzen duten emakumeen %77ak banaketa erabiltzen du indarkeria harremanetatik ateratzeko modu gisa, eta ez indarkeria matxistaren salaketa bera. Era berean datuen arabera, indarkeria egoera batetatik ihesi dauden emakumeen


%84a seme alabak ditu, beraz, indarkeria sufritzen duten biktimak halako prozesuetan aurkitzea ohikoa da

Komunikabide eta sare sozialetan bolo bolo ibilitako Gurasoen Alienazio Sindromeaz ere galdetu diogu Plazaolari, izan ere maiz erabiltzen da sindrome hori indarkeria sufritzen duten emakumeen aurkako estrategia gisa. Plazaolak gogora ekarri duenez, Richard Gardner-ek asmatu zuen sindromea da Guarsoen Alienazio sindromea eta nahiz eta ez dagoen gaixotasun psikiatriko bezala errekonozituta (ez OMEk eta ez beste edozein erakundek) amen aurkako alegazio moduan erabili dute operadore juridiko desberdinek.

Umeak tartean direnean bikote harremanak gaiztotu eta korapilatu egiten egiten direnaren ustea zabaldua dago. Hala den galdetu diegu gure inkestatuei eta % 80ak uste du umeak medio harremanak zaildu egiten direla.

Umeak medio bikote harremanak konfliktiboagoak bihurtzen direla uste duzu?

141 erantzun



Hona hemen gurekin partekatutako hainbat bizipen eta testigantza:

"Hezkuntza moduetan liskarrak sor daitezke"

"Bikote harremanean lehenagotik landuak ez zeuden gauzak azaleratzen direla uste dut, baina ez ditu "haurrak ekartzen", hor zeuden lehenagotik baina gerora ikusten dira"

" Ni eszedentzian egonik, ardurak eta ekonomia partekatu dugu eta ez dut menpekotasunik nabaritu. Onartzen dut estrukturaliki bai menpekotasunik sortzen duela, eta emakumearengan geratzen dela, baina guk ez dugu horrela bizitu. Hori bai, nik eszedentzia hartzeagatik eduki ditzakedan kotizazio kontuak eta... Ez diot horri begiratu nahi, oraina begiratzen dudalako"

"Ulertzen dut eragina duela, gehienetan emakumeok hartzen baitugu baimena. Baina hori gure esku dago aldatzea ere"

"Bananduz gero nire baldintza materialak txartuko dira, eta horrek erabakia baldintzatzen du"

"Harremanak okertu edo hobetu, proiektu bat partekatzeagatik. Zaurgarriagoa, guztiz."

"Nik eszedentzia eta murrizketak nahi nuelako hartu baditut ere, txikiekin egoteko, eragin zuzena izan du nire lan bizitzan eta ere errealtate ekonomikoan. Eta ezin kexatu, nire nahia izan delako. Nahiz eta onura denentzat den"

"Banaketen aurrean babes handiagoa behar lukete amatasunagatik egindako sakrifizioek"

"Egoera ekonomiko baxuagoan gaude ama izan aurretik ere. Ez da amatasuna jatorria"

INDARKERIA OBSTETRIKOA

Emakumeek erditzean jasotzen duten arretari buruz egiten diren inkesta eta ikerketetan emakumeek jasaten duten indarkeria obstetrikoa maiz agertzen da. Zehazki, Estatu espainolean 2018ko urtarriletik 2019ko ekainera bitartean egindako ia 18.000 elkarrizketatik, emakumeen %38,3k indarkeria obstetrikoa jasan zutela hauteman zuten. Beharrezkoak ez ziren esku-hartzeak egin zitzaizkiela salatu zuten elkarrizketatutako % 44,4k. Era berean, % 83,4k adierazi dute arreta eman zieten profesionalek ez zieten baimen informaturik eskatu.

Indarkeria obstetrikoa genero-indarkeria mota bat da. Abusuzko jokabidearen eta gehiegizko medikalizazio eta patologizazioaren bitartez, haurdunaldian, erditzean eta erditu ostean eragindako tratu txarra litzateke, emakumearengan eta bere umearengan ondorio fisiko eta psikologiko larriak eragin ditzakeena.

Haurdunaldian, erditzean eta erditu ostean amak eta umeak dituzten behar emozionalak ez ezagutzea suposatzen du. Emakumeak bere sexualitateari, gorputzari eta umeari dagozkion erabakiak askatasunez hartzeko gaitasuna eta autonomia ez aitortzea. Eta erditzeak normaltasunez garatzeko behar dituen posturak, erritmoak eta denborak ez errespetatzea.

Osasun-langile guztiek ez dute indarkeria erabiltzen, eta eragiten dutenean, gehienetan, ez dakite hori indarkeria denik. Emakumeak ere, kasu askotan, ez dira kontziente jasan dutenik ere. Gaur egun existitzen dela ere ukatu egiten da.

GORPUTZA ETA SEXUALITATEA


Emakumeon gorputzak erditze prozesu batetik igaro ostean, eraldatu egiten dira. Sabelean eta bularretan agertzen diren ildaxkak, barizeak, aldakak zabaltzea edo maiz agertzen diren zelulitisa eta laranja-azala gorputz erdituaren arrastoak dira.

Erditu eta bi egunetara gorputz mehe eta estereotipatuak erakusten dizkiguten komunikabide eta famatuek ez dute onik egiten, eta beste behin ere, espektatibetan eragiten dute. Gorputz aldaketek emakumeen autoestimuan dute eragin handia. Autoestimua aldi berean, lotura du zure buruarekin duzun estimuarekin eta besteek zureganako duten estimuarekin. Autoestimu ona izatea funtsezkoa da, izan ere norberaren buruarekin ondo sentitzeak, ongizate emozionalean eta norberaren jokaeran duen eragina, eta beraz osasun mentalari eragiten dio.

Inkestatutako emakumeen ia %43ak euren gorputzetan izandako aldaketa zein aldaketa hormonalek arazoak eragin dizkietela aitortu dute.

Zure gorputzaren aldaketek zein, aldaketa hormonalek arazoak sortu dizkizute ama izan zarenetik?

138 erantzun



Zenbait bizipen ere partekatu dituzte:

"Nire gorputzarekiko nuen harremana asko aldatu da. Une honetan asko kostatzen zait dudana onartzea eta gustura sentitzea nire gorputz formekin"


"Erditu eta gero hipotiroidismoa diagnostikatu zidaten, zoru pelbikoa okertu zitzaidan, fisioan egon nintzen pototako desgarrero zikatriza lantzeko"

"Zoru pelbikoa ahulagoa dut, zenbait kirol egiteko zailtasunak"

Eta %82ak onartu du aldaketak hauek medio bere bizitza sexuala aldatu dela ama izan denetik.

Zure bizi sexuala aldatu egin da ama izan zarenetik?

139 erantzun



Eta zenbait bizipen ere partekatu dituzte gurekin:

"Bigarren erditzea eta gero arazoak izan ditut harremanetan titia eman dudak bitartean"

"Ez dakit ama izateagatik edo adinagatik baina arazoak izan ditut bizitza sexualean"

"Ez dut harreman sexualak izateko batere gogorik eta honek errudun sentiarazten nau."

"8 bat urtetan eragin didala esango nuke: logura, nekea, estresa, arazo fisiologikoak eta titia emateko dedikazioa. Geroztik jada asko disfrutatzen ari gara, egia esan."

"Inoiz izan dudak sexurik onena haurdunaldietan izan da."

"Arazoak ez, baina denbora behar izan dut nire gorputzarekin berriz konektatzeko"

Erditze prozesua ez da sexualitatean eragin duen faktore bakarra, erditu ez den baina ama den emakumearen bizitzan ere aldaketa sakona dakar ume baten hazkuntzak, izan ere, zaintzara eskainitako ordu kopuru eta atentzioak ere eragina du bizitza sexualean.

Sexualitatea esfera estanko bat dela, aldatzen ez dela edo beti berdina izan beharko lukeela dioen ideia hautsi egin behar da eta gozamenari eta plazerari buruzko ikerketetan haurdunaldi, erditzea eta erditze ondoko eremuak aintzat hatu behar dira. Prozesu horiek giza ugalketaren parte direnez, halaberrez dira sexualitatearen parte.

Sexualitatea dinamikotzat hartzea, bizitzako etapa desberdinetan modu desberdinean adierazi eta biziko dela ikasi beharko genuke. Gure harreman sexualak eta afektiboak amatasunaren ondoren aldatuko direnaren beldurra oso ohikoa da etorkizuneko ametan. Aldaketa dagoela aitortzen dute inkesta bete duen emakumeen %80ak baina aldaketa ez du zertan okerrera izan behar.

Gure sexualitatea ezagutzea eta horren jabe egitea gure ahalmen sortzailea berreskuratzea da, bizi garen gizartean fisikoki eta politikoki kokatzeko tresna, gozamenetik bizitzeko beharrezko lekuan jartzen gaituena, estigmatizaziorik eta errurik gabe

ONDORIOAK

Amatasunaren instituzioak historian izandako bilakaera aztertzen du Adrienne Richek "Emakumeagandik jaioa" saiakeran eta amatasuna instituzio patriarkal edo esperientzia pertsonal gisara banatzen ditu. Noski, amatasunak instituzio gisa baldintzatu eta mugatu egiten du, baina feminismoaren erronka amatasunaren instituzio patriarkala suntsitzean eta esperientzia pertsonala askatzean ez ote dago?

Feminismoak lortu du amatasuna aukera bat izatea eta ez emakumeen eginbehar bat. Emakume-ama binomioa gaingaituta, **ez al da garaia amatasunaren esperientzia nola eta zein baldintzetan bizi nahi dugun erabakitzeko?**

Ama izateak gaur egun, bizitzako esparru ezberdinetan uko egitea dakar. Inkestatutako %73,7ak aitortzen du ama izatea erabaki zuenetik gauza askori uko egin behar izan diola. Ama izatea ala libre izatea planteatu zaigu askotan dikotomia gisa. Eta noski, ez dugu guk ukatuko ama izateak denbora eta esfortzua eskatzen duenik, baina non dago arazoa? Amatasunean ala bizitzaren logikaren aurka doan sistema sozioekonomikoan?

INDARKERIA SINBOLIKOA

Ama izateko presioa badago, %51ak onartu du presio hori sentitu duela noizbait, eta oraindik oso gogorra da **ama izan nahi ez izatea**. Are larriagoa da **ama izan nahi eta ezin** dutenen egoera, norberak bizi duen prozesu zailari, doluari askotan, aurre egiteaz gainera, inguruko presioa jasan behar izaten dute. Gutxi hitz egin da, ama izan nahi eta ezinez, eta gutxiago abortuaz eta heriotza perinatalaz.

Gazteek pairatzen duten langabezia eta prekarietatea, etxebizitza duina lortzeko aukera eskasak eta zaintza eta ordaindutako lana bateragarri egiteko neurri eraginkorrik ez egoteak, asko atzeratzen du ama izateko erabakia. Eta honek, nahi edo ez, haurdun geratzeko aukerak murrizten ditu.

Interes enpresarialek antolatutako gizarte eredu hau, bizitzaren erritmoen kontrakoa da. Geroz eta gehiago dira haurdun geratzeko erreprodukzio teknikak behar dituzten emakumeak. Honek **amatasuna pribilegio** bihurtzen du, izan ere, osasun sistema publikoaren zerrenda amaigabeen ondorioz (adin muga ere izan ohi dute), askok jotzen dute osasun zentro pribatuetara. Diruaz haratago, halako prozesuak oso gogorrak izan ohi dira, bai fisikoki zein mentalki.

Gure ustez gurasotasuna ez da eskubide bat. Guraso izateko desioa zilegi izanik, horrek ez du esan nahi eskubidea denik eta gurasotasuna ezin da besteen eskubideen gainean eraiki; eta beraz, ezin da onartu haurdunaldi subrogatua eredu gisa.

Haurdunaldi subrogatuaren oinarrian menpekotasun ekonomikoa dago. Pobreziak bultzatzen ditu emakumeak euren gorputzak alokatu eta besteen umeak izango direnak erditzera. Haurdunaldi subrogatua sistema kapitalistak merkantilizatutako prozesu biologikoa da. Emakumeek haurrak sabelean hezteko duten gaitasuna negozio bihurtzeko ariketa.

Amatasun eta haziera ereduak. Inkestatutako ia %64a aukeratutako amatasun ereduagatik epaitua sentitu da. Ama bihurtzen zarenean, bi amatasun eredu kontrajarri jartzen zaizkizu begien aurrean: amatasun eredu patriarkala edota neoliberala, erabat merkatuari lotutakoa. Eredu patriarkal eta neoliberalari alternatiba gisa, azken urteetan indarra hartzen ari duen haziera naturala edo atxikimenduzko haziera eredu dugu.

Eredu honek ekarpen oso positiboak egiten ditu, zaintzak beharrezkoa duen garrantzia hartzen du, eta interes sozioekonomikoak alboratuz, bizitzaren erritmo eta logikak lehenesten ditu. Haatik, eredu hau ez dago herritar guztien eskura, izan ere, hazierarako beharrezko denbora eskatzen du, eta beraz denen aukera ez den esfortzu ekonomikoa.

Eredu bakoitza zurruna eta kontrajarria da bestearekin. Zaintzaren ardura baina, emakumeen esku jarraitzen du eredu guztietan, eta zaintzaren ardura erruz beteta daramagu emakumeok sorbalda gainean.

Amatasunean baina, dena ez da zuria edo beltza eta eredu bakoitzak bere alde onak eta bere arriskuak ditu. Kontzienteki edo inkontzienteki eredu baten alde edo bestearen alde jotzen dugu. Baina noski, hau ez da erabaki erabat librea, bakoitza bere testuinguruari eta aukera ekonomikoei hertsiki lotua eta baldintzatua dago. Hau da, erabaki ideologikoz haratago, bakoitzak ahal duena egiten du. Dituen baldintza eta aukeren arabera, malabarismo ezinezkoak eginez, ahal duen moduan bizirauten du.

Ama bakoitzak duen egoera eta testuinguruarekin ahal duena egiten saiatzen dela onartzen badugu, geure artean kritikatu baino, ez da al da eraginkorragoa, **ahizpatasunez elkartu eta benetan amatasuna itogarri egiten duen sistema kapitalista eta patriarkalaren aurka elkarrekin jotzea?**

KONTZILIAZIOA

Amatasun eta aitasun bajak urriak izateaz gainera, ordaindutako lanari lotutako prestazioak dira, beraz, langabezian edo kontraturik gabeko lan merkatuan aritzen diren pertsonak ez dituzte eskumen horiek. Haur jaio berrien zaintza ez luke eskubide unibertsal bat izan behar?

Eta baimen hauek bukatzen direnean zer? Inkestatutako emakumeen **%95ak amatasunak euren lan ibilbidean eragina** izan duela aitortu du. Lanaldi murrizketek eta eszedentziek papera garrantzitsua jokatzen dute kontziliazio ariketa horretan.

Baina noski, lan murrizketa eta eszedentzia hartzeko premia eta aukera oso lotuta dago norberaren behar sozioekonomikoekin, eta emakume asko dira lan eskubide hauek hartzeko aukerarik ez dutenak.

Seme-alaben zaintza lanak emakumeen bizkar egoteak ondorio asko ditu lan ibilbideetan: kotizazio etenaldiak, jardunaldiaren murrizketak, kotizazio oinarri txikiagoak, eszedentziak... eta honek guztiak orainean ez ezik lan ibilbidearen garapenean eta ondorengo prestazioetan ditu ondorioak; **pentsioetan ere genero arrakala** egon badagoelako.

Kontziliazioaz ari garela, **guraso bakarreko familiek bizi duten egoera** nabarmendu beharreko elementua da. Guraso bakarreko familien % 81,1ean emakumea da heldu bakarra eta honek beharrezkoa egiten du guraso bakarreko familiaren gaiari genero-ikuspegitik heldzea.

Etxe barruko kontziliazioa ere gatazka askoren iturburua da. 2021ko Eustateko datuen arabera, emakumeek egiten dituzte etxeko lanen %67,2 Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan.

Lanaldi bikoitzak, lan-merkatuan eta etxeko eremuan, **kostu emozional eta pertsonala handia** eragiten du emakumeengan eta bereziki amengan. Inkesta bete dutenen %80 baino gehiagok onartzen du amatasunak eta honek eragiten duen zamak euren osasun mentalean eragina duela. Zaintzak dakartzan konplikazioei Pandemiak ekarritakoak gehitu behar zaizkio, Koronabirusak ekarri zuen itxialdiak inoiz baino nabarmenago utzi zuen "gizarte familiarista" batean bizi garela eta etxeko lau pareten artean bizi ziren horien artean antolatu behar zen lan ordaindua eta zaintza lanak. Etxe barruan baina, orekarik ez, eta emakumeek jasan zuten zama latzena.

Amatasunaren hautuak beste bide eta aukera batzuk moztu egiten ditu. Hala ondorioztatu daiteke erantzunak ikusita, izan ere, inkestatuen %73,7ak aitortzen du gauza askori uko egin behar izan diola ama izatea erabaki zuenetik. Emakumeen bizitzetan garrantzitsuak diren espazio eta denbora tarte ugari alboratu beharrean aurkitzen dira zaintza lanak medio, eta momentuan uko txiki gisa ikusten ditugunak, gerora gabezi handiak ekar ditzaketela erakutsi dute inkesta bete duten emakumeek.

Haurren kanpo zaintzarako dauden baliabideak erabat eskasak dira, hala deritzo inkestatuen %87,1ak eta baliabide horien prezioa gehiegizkoa dela ere iritzi diote %75ak.

Asko hitz egiten da tribuaren beharraz, baina inkestak argi utzi du % 84,3ak haurren zaintzarekin moldatzen ez direnean familiarengana jotzen dutela lehen aukera gisa. Honek **aiton-amonen, eta bereziki amonen figura** jartzen du mahaigainean. Zaintza jasotzaileak diren arren, zaintzaile paperean aritzen dira muxu truk.

Eta zaintza lanak azpikontratatzan ditugunean, emakume etorkinak dira oro har gure aiton-amonen kargu egiten direnak, gure etxeak garbitu eta umeak zaintzen dituztenak. Paradoxikoki gainera, askotan gure seme alaben kargu egiteko, euren seme alabak sorterrian utzi behar izan dituzte, askotan beste emakumeen esku. Fenomeno honi, **zaintzaren kate globala** deitzen zaio.

Familia biologikoaz haratago doazen zaintza ereduen alde egitea ezinbestekoa da. Familia geroz eta txikiagoak ditugu, eta beraz laguntza eskaini dezaketen norbanakoak gutxiago dira. Arkitektonikoki ere modu isolatuagoan bizi gara, bakoitza bere pisuan, familia ugari batzen zituen baserrien ordeaz... Baina behar material bat izateaz gainera, aldarrikapen ideologiko bat izan behar du. **Zaintza familia nuklearretik kanpo kokatu behar** dugu. Afrikako esaldi zahar baten arabera, ume bat hezteko tribu oso bat behar da. **Zaintza kooperatibo edo komunitarioaren alde** apustua egin behar da.

INDARKERIA MATXISTA

Indarkeria matxista ematea ahalbidetzen duten elementuak **"zaurgarritasun ekonomikoa, mendekotasun emozionala, sostengu sozial falta edo kontziliazio eza"** dira. Hala iritzi dio elkarrizketatu dugun Irule Abokatuak elkarteko Garazi Plazaolak eta tamalez, amatasunak egungo gizartean zaurgarritasun ekonomikoa, bakardadea, mendekotasun emozionala eta sostengu falta dakar askotan. Inkestatutako %97tik gora uste du emakumeak egoera ekonomiko baxuagoan uzten dituela amatasunak eta menpekotasun ekonomiko horrek emakumeak are zaurgarriago bihurtzen gaituela ere iritzi dio %88 pasatxok.

Indarkeria matxista sufritzen duen eta **ama den emakume batek zama bikoitza** duela uste du Plazaolak. "Amatasunak, bereziki lehen hilabete eta urteetan, dakarren pisuarekin, emakumeek ez dute euren burua zaintzen eta beraz zaildu egiten da indarkeria egoeratik ateratzeko indarrak eta baliabideak lortzeko prozesua. Biziraupen egoera horretan zauden bitartean zaila da tarteak hartzea eta egoerari buruzko kontzientzia hartzea, eta ondoren indartu eta hortik ateratzen hastea", dio.

GORPUTZA ETA SEXUALITATEA

Emakumeon gorputzak erditze prozesu batetik igaro ostean, eraldatu egiten dira. Erditu eta bi egunetara gorputz mehe eta estereotipatuak erakusten dizkiguten komunikabide

eta famatuek ez dute onik egiten. Gorputz aldaketek emakumeen autoestimuan dute eragin handia eta autoestimua aldi berean, ongizate emozionalaren oinarria da. Inkestatutako %82ak onartu du aldaketak hauek medio bere bizitza sexuala aldatu dela ama izan denetik. Baina aldaketa ez du zertan okerrera izan behar. Sexualitatea dinamikotzat hartzea, bizitzako etapa desberdinetan modu desberdinean adierazi eta biziko dela ikasi beharko genuke, izan ere, gure sexualitatea ezagutzea eta horren jabe egitea gure ahalmen sortzailea berreskuratzea da.

BIBLIOGRAFIA

- "¿Dónde está mi tribu?" Carolina del Olmo
- "La mejor Madre del mundo". Nuria Labari
- "El vientre vacío". Noemí Lopez Trujillo
- "Emakumeagandik jaioa" Adrienne Rich
- "Mama desobediente: Una mirada feminista a la maternidad". Esther Vivas
- "Bai ala ez baina haratago". Argia aldizkariaren artikulua.
- "Amatasuna eta atxikimenduzko haziera ereduak Gipuzkoan", Ainhoa Narbaiza.
- Emakunde 2019ko azterlana genero arrakalaren inguruan
- 2021ko Eustateketxeko lanen inguruan egindako inkesta
- Estatu Espainoleko emakumeen Institutuak urtero egiten dituen ikerketak
- Estatu espainolean Malas Madres elkarteak 50.000 emakume baino gehiagori egindako "El coste de la conciliación" inkesta
- Espainiako bazterkeriari eta garapen sozialari buruzko FOESSA VIII. Txostenak.
- Etxe barruko Indarkeriaren eta Genero Indarkeriaren aurkako Behatokiak,